



Debagoienako Mankomunitatea

TURISMO ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA ETA ESTRATEGIA TURISTIKOA

2023 Urtarrila


bizibiziki

Aholkularitza turistikoa. Turismo Iraunkorra

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. PLANTEAMENDU OROKORRA	3
2.1. Lanaren helburuak	3
2.2. Metodologia	4
3. ERREALITATE TURISTIKOA IRUDIKATZEN:	6
3.1. Abiapuntua: Planen azterketa	6
4. ERREALITATE TURISTIKOA IRUDIKATZEN:	8
DIAGNOSTIKOA	8
4.1. Kudeaketa turistikoaren analisia: Agenteak identifikatzen	8
4.1.1. Turismo kudeatzaileak	9
4.1.2. Turismo kudeatzaile espezializatuak	11
4.1.3. Kontuan hartzekoak - Gobernantza	16
4.2. Zerbitzu turistikoak: Zerbitzu espezializatuak	17
4.2.1. Ostatu turistikoak Debagoienan	17
4.2.2. Turismo zerbitzu enpresak	22
4.2.3. Kontuan hartzekoak - Zerbitzu espezializatuak	25
4.3. Zerbitzu turistikoak: Zerbitzu osagarriak	26
4.3.1. Jatetxeak.	26
4.3.2. Bertako produktuak eta artisautza	27
4.3.3. Kontuan hartzekoak - Zerbitzu osagarriak	28
4.4. Bisitariaren analisia	29
4.4.1. Kontuan hartzekoak - Bisitaria	32
4.5. Baliabide turistikoak identifikatzen	33
4.5.1. Baliabide turistikoen tipologia	35
4.5.2. Baliabide turistikoen kokapena	36
4.5.3. Baliabide turistikoen hierarkia	37
4.5.4. Baliabide natural eta kulturalen babes maila	39
4.5.5. Baliabide turistikoen titulartasuna eta kudeaketa erakundeak	39
4.5.6. Baliabide turistiko eta produktu turistikoen arteko harremana	40
4.5.7. Baliabide turistikoen inguruan ematen diren masifikazio arazoak	40
4.5.8. Kontuan hartzekoak - Baliabide turistikoak	41
4.6. Produktu turistikoak	42
4.6.1. Produktuekin identifikatutako segmentu turistiko nagusienak	42
4.6.2. Kontuan hartzekoak - Produktu turistikoak	46
5. Lurraldearen posizionamendu turistikoari buruzko hausnarketa	47
5.1 Gaur egungo estrategia	47
5.2. Garapen eta promozio turistikorako helburuak	49

6. AMIA ANALISIA - DEBAGOIENA MANKOMUNITATEA	50
7. Estrategia turistikoa	54
7.1 Helmuga turistikoaren ikuspegia	54
7.2 Helburu estrategikoak	55
7.3. Estrategia ardatzak	58

1. SARRERA

Ondorengo dokumentuak Debagoiena Mankomunitateko Turismo Estrategiaren garapena jasotzen du, Mankomunitate hau 8 herri ezberdinek sortzen dute; Antzuloa, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati. Aldi berean, bertan jasotzen diren lan ildoak, estrategia garatzeko eta aurrera begira garatu nahi diren plan eta lanen oinarri bezala ulertuko dira.

Horrela, dokumentu hau Debagoiena Mankomunitaterako erronka eta aukera berri bat bezala aurkezten da, errealitate turistiko eta sozial berriei erantzuteko ikuspegia kontenplazten eta eraldaketa baterako premisatzat balioko duena.

Diagnosi lan honen lanketatik eratorritako emaitzak, lanean oinarritutako metodologian oinarritzen dira, hala nola; orain arteko eskualde ezberdinek dauzkaten planetatik batetik, eta turismo eragile ezberdinekin izandako elkarrizketatik bestetik.¹

2. PLANTEAMENDU OROKORRA

2.1. Lanaren helburuak

Arestian esan den bezala, Debagoiena Mankomunitatetik garatu nahi diren erronkak identifikatzea da lan honen helburu nagusia. Horretarako, ondorengo helburuak zehatzak zehaztu direlarik:

- **Egungo turismo errealitatearen argazkia osatzea.**
- **Turismo Estrategiaren parte bezala, eragile ezberdinen parte hartzea sustatzea.**
- **Diagnostikoan oinarritutako planteamendu estrategikoa definitzea.**

Gaur egun Debagoiena Mankomunitateko turismo sektorearen errealitatea garbi ikusi, ezagutu eta joera esanguratsuenen identifikazioa ezagutzea izango da helburu nagusienetako bat; honi esker, sektoreak gaur egun lurraldean duen pixu eta garrantzia irudikatu eta ulertuko da eta hau oinarritzat hartuta, epe motz-ertainerako estrategia turistikoaren planteamendua egingo da.

¹ Elkarrizketak burutzeko zailtasuna izan dira zenbait kasuetan eta beraz, zenbait errealitate biltzeko eta hausnartzeko beharra egon daiteke dokumentuan zehar.

2.2. Metodologia

Proiektuan zehar erabilitako metodologia ondorengoa izan da:

- **Elkarrizketak:** Lanaren oinarri bezala ulertzen dira eta diagnostikoaren ardatzak elkarrizketa hauetatik jasotako oinarrietan antolatu dira. Elkarrizketatuak bestalde Debagoienako mankomunitateak zehaztutako agenteekin burutu da.

	Erakundea/Kargua	Eguna	Iraupena
Nerea Laizpur	Toki Garapeneko Teknikaria	2022-09-16	1h 30min
Mentxu Zoria	Bergarako Turismo Teknikaria eta Laboratorium Museoa	2022-09-19	1h 30min
Ikerne Altube	Oñatiko Turismo Teknikaria	2022-07-19	1 30min
Aitor Larrañaga	Leintz Gatzagako Turismo Teknikaria, Turismo Bulegoa eta Gatz Museoa	<i>Ez da elkarrizketatzeko aukerarik izan.</i>	
Inés Cáceres, Maider Etxaide eta Leire Parra	Debagoiena Mankomunitateko Turismo Teknikariak	2022-09-15	1h 30min
Edurne Urteaga	Oñatur Turismo Bulegoa eta Arrikutz Kobak	2022-09-16	1h 15min
Goizane Gabilondo	Ibarre Nekazal Turismoa	2022-10-03	1 ordu
Edurne Isasmendi	Taberna Berri Jatetxea	<i>Ez da elkarrizketatzeko aukerarik izan. Erantzunik ez.</i>	
Oxel Arrieta	Menditxik: mendi eta arroila gidariak	2022-09-29	45 minutu
Amaia	Uxarte Ostaturia eta Jatetxea	2022-10-05	40 minutu
Goizeder	Ormazabal Hotela	<i>Ez da elkarrizketatzeko aukerarik izan. Erantzunik ez.</i>	
Miriam Gómez	Tartufo Jatetxea	<i>Ez da elkarrizketatzeko aukerarik izan. Erantzunik ez.</i>	
Nerea Villa	Elgetako Bisita Gidatuak	2022-09-15	45 minutu
Jesus Kalboetxeaga	Maialde Landetxea eta Jatetxea	2022-09-20	40 minutu
Alex Pérez	Gorosarri Landetxea eta Apartamentuak	2022-10-04	45 minutu
Sorkunde	Torre Zumeltzegi Hotela eta Jatetxea	<i>Ez da elkarrizketatzeko aukerarik izan. Erantzunik ez.</i>	
Miren Maiztegi	Goiko Benta Ostaturia eta Jatetxea	2022-09-22	40 minutu

Taula 1: Debagoiena eskualdeko eragileekin egindako elkarrizketak. / Lanketa propioa.

- **Barne lana:** Diagnostikoaren parte, egun tokiko turismo planak herrrikako errealitate turistikoa eta eskualdeko ikuspegia ezagutzeko oinarri bezala identifikatu dira. Kontuan izan behar baitugu, azken urteetan garatu direla estrategia gehienak eta beraz, estrategia zehatzen beharra zehazten dela. Dokumentu desberdinak aztertu dira:

Aztertutako dokumentuak: (Abiapuntuak atalean zehazten dira plan hauetatik ateratako edukiak)

- Oñatiko Turismo Plan Estrategikoa 2021-2025.
 - Arrasateko Turismo Plana 2019-2023
 - Bergarako Turismo Plan Estrategikoa 2022-2025
 - Euskadi Helmuga Turistiko Adimentsua 2022-2023
 - Debagoienako Turismo Arloko 2021ko Plangintza
- **Bilkura parte hartzaileak:** Bi parte hartze bilkura ezberdin ospatu dira diagnostikoaren eta lan ildo estrategikoaren diseinuaren baitan (ikus ERANSKINA III).

Parte hartze bilkura I	Parte hartze bilkura II
<p>Helburua: Diagnostikoa partekatu eta lehentasunezko erronkak identifikatzea</p>	<p>Helburua: Burututako lanaren baitan, aurrera begirako erronkak, ekintzak identifikatzea eta agenteen parte hartzean egon daitezkeen aukerak identifikatzea</p>
<p>Bilkuraren data: 2022.10.27</p>	<p>Bilkuraren data: 2022.11.03</p>
<p>Parte hartzaile kopurua: Presentzialki: 4 pertsona Online: 5 pertsona</p>	<p>Parte hartzaile kopurua: 13 pertsona</p>
<p>Euskarriak: Diagnostikoaren aurkezpena eta Diagnostikoa eta planteamendu estrategikoaren aurkezpena.</p> <div data-bbox="480 1626 1107 1975" data-label="Image"> </div>	


Taula 2: Debagoiena eskualdean egindako bilkura parte-hartzaileak. / Lanketa propioa.

3. ERREALITATE TURISTIKOA IRUDIKATZEN:

3.1. Abiapuntua: Planen azterketa

Azken urteetan Debagoienako udal ezberdinek Turismo Planak burutzeko beharra izan dute. Eta horren adibide dira Arrasate, Oñati edo Bergarak azken urteetan burututako turismo planak. Kontestu honetan, herri mailako estrategiak Debagoienako errealitateari lotutako erronkak biltzea izango da estrategiaren abiapuntuetako bat.

2018. urtean garatu zuen Arrasateko Udalak eta 2020-2021. urtean Oñati eta Bergarak hurrenez hurren. Plan hauek ezinbestean eskualdeko estrategiaren baitan kokatzea ezinbestekoa izango da eta bertan eskualdeari buruz identifikatzen diren erronkak biltzea.



Irudia 1: Debagoiena eskualdeko mapa uda 2021. Iturria: Debagoiena Turismo.

Horrela, helmuga turistikoaren **hasiera puntua** ondorengo planetan kokatzen da:

- Arrasateko turismo Plana 2019-2023. Ikertalde.
- Bergarako Turismo Plan Estrategikoa 2022-2025. Beinke.
- Oñatiko Turismo Plan Estrategikoa 2021-2025. Beinke.

Jasotako Turismo Planetatik eta abiapuntuko irakurketa moduan, **eskualdeari lotutako lan lerro eta behar garrantzitsuenak** identifikatu dira:

1. **Baliabide turistikoen garapena eta posizionamenduan lan egiteko beharra dago.** Batez ere landa eremuko ondarea balioan jarri eta baliabide turistiko jakin batzuetan , batez ere kulturalak eta naturalen azterketa eta sustatze mailan lan egiteko beharra azpimarratu da. Kontestu honetan, baliabide turistiko ezberdinen erakargarritasun gaitasunak eta garapen mailak errealitate turistikoa gune batzuetan pilatzea dakar.
2. **Eskaintza turistikoa indartzeko beharra dago.** Baliabideen garapena eta turismoaren bilakaeraren baitako lan lerroa bezala identifikatzen da. Zehazki produktuen garapen eta eskaintzari dagokionean.
3. **Sektore turistikoaren estrategia eta helburuak zehazteko beharra dago.** Eskualde mailako estrategia zehatza identifikatzeko beharra zehaztu da eta estrategiarekin batera gobernantza strategiaren hasurnarketak bideratzea.
 - a. Gobernantza estrategia moldatu, antolatu berpentsatu

Orain arte identifikatutako lan lerro hauen errealitatea nolakoa den ezagutzeko ere erabili dira lanaren baitan zehaztutako elkarrizketetan. Ildo honetan, ondorengoak dira ere orain arte **eskualdeari begira identifikatutako erronkak:**

Bestalde, nahiz eta udalerrri bakoitzak bere erronkak izan, Planen azterketa eskualde mailako ikuspuntutik egin da eskualde mailako erronkak zeintzuk diren identifikatu ahal izateko. Jarraian, Debagoienako eskualdeak etorkizunean aurre egin beharreko erronka bildu dira eta batez ere Gobernantza, posizionamendua eta Estrategia turistiko berarekin lotzen direla identifikatu da.

GOBERNANTZA	<ul style="list-style-type: none">- Turismoaren papera eskualdean zehaztea eta honen inguruan dagoen estrategia zehatza identifikatzea.- Kudeaketa erduetan sakontzea.- Erabilera publikoen haurnarketa burutzea, batez ere natur inguruneei dagokionean.- Herritarren parte hartze estrategiak txertatzea.
LURRALDE POSIZIONAMENDUA	<ul style="list-style-type: none">- Produktuak: Eskualdeagi egokitutako produktu eskaintza berezitua estrukturatzea.- Marketing eta sustapena: Bisitari zein herritarrei begirako estrategiak lantzea.
ESTRATEGIA ETA EKINTZA PLANA	<ul style="list-style-type: none">- Iraunkortasun klabe espezifikoak zehaztea. Mugikortasun iraunkorrerako alternatibak mahaigaineratzea.

Taula 3: Eskualde mailan identifikatutako erronken sailkapena. / Lanketa propioa.

Beranduago, diagnostikoa garatzeko momentuan elkarrizketatik identifikatuko diren erronkak estrategia garatzeko momentuan izango dira txertatuak atal bakoitzaren ondoren.

4. ERREALITATE TURISTIKOA IRUDIKATZEN:

DIAGNOSTIKOA

Orain arteko lanetan jasotako errealitatea osatzeko azterketa bezala identifikatzen da ondorengo diagnostikoa eta zehazki eskualde ikuspegitik argazki errealagoa zehazteko lanketa litzateke. Honela kudeaketa turistikoa, posizionamendua eta egungo bisitarien errealitatea ezagutzeko baliagarria izango da besteak beste.

Hemen jasotzen diren edukiak ondorengo iturrietatik jaso dira:

- Eskualdeko eragile eta agente ezberdinei egindako elkarrizketak.
- Debagoiena Mankomunitateak zuzkitutakoak:
 - Erregistratutako Alojamentuak 2015-2022.
 - Debagoiena Mankomunitateko Turismo Aurrekontuak 2022.
 - Jatetxeen Erregistroa Udalerriak 2022.
 - Museo, Turismo Bulego eta Teknikari Turistikoaren inguruko informazioa.
 - Eskualdeko Okupazioa Udan 2021.
- Iturri Ofizialak:
 - Turismo Bulegoak eta Informazio Puntuak.
 - EnfokaTur. Euskadiko Behatoki Turistikoa.
 - Turismo Debagoiena web orrialdea.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Bosthileko Txostena 2022 (maiatza-iraila).


4.1. Kudeaketa turistikoaren analisia: **Agenteak identifikatzen**

Turismo-errealitatean parte hartzen duten eragileen egituraketak helmugako turismo-testuingurua ulertzeko eta proiektatzeko modu bat dela esan dezakegu. Diagnostiko honen lehengo atal moduan aktore ezberdinen sailkapen eta analisia burutzen da eta Debagoienan duten papera zehaztu da.

Zentzu honetan, garrantzitsua da abiapuntu bezala Debagoiena mankomunitateak jomuga turistiko zehatz bati erantzuten diola bere osotasunean eta beraz berau identifikatzen dela jomugari dagokion agente estrategikoa.

4.1.1. Turismo kudeatzaileak²

Eskuadean turismoaren ardura eta honen dinamizazioarekin lotura duten agente bezala identifikatzen dira. Zentzu honetan eskualdeari egokitzen zaizkion bi egitura zehazten dira:



Irudia 2: Debagoiena eskualdeko turismo kudeatzaile zuzenak. Iturria: lanketa propioa.

- **DEBAGOIENA MANKOMUNITATEA.**

Debagoiena eskualdeko turismo errealitatea egitura estrukturatu baten baitan kokatzen da. Gaur egun, Debagoiena Mankomunitateak du turismoaren dinamizazioaren ardura beste eragile publiko batzuekin batera. Helburuak zehaztea, lankidetzak bultzatzea, baliabideak erraztea, ekintzak bultzatzea eta segimendu bat burutzea dira agente honen funtzio nagusienak.

- Turismoaren plangintzan eskumen zuzena duen agentea du Debagoienako eskualdeak; Debagoiena Mankomunitatea. Eskualde mailako errealitateak barneratzen ditu eta plangintzaren ardura bereganatzen du.
- Debagoiena Mankomunitatearen figurak turismo markaren parte diren udalerrien posizio turistikoa eta kudeatzaile bateratzailea adierazten du.
- Arantzazuko Turismo bulegoko kudeaketaren ardura du.
- Bi noranzkoko harremana ematen da eskualdeko udal guztiekin. Aldizkako bilerak egiten dira turismo teknikari eta udal arduradunekin.
- Sektore pribatuarekin harremana ez da hain aldizkakoa ematen. Eskualdeari lotutako produktuak garatzeko momentuan izaten da eta ekarpen zehatzak eskatzen zaizkie. Ez da ostatu eta turismo enpresen fororik identifikatzen.

² Atal honen helburua bestalde ez da inoiz ere gobernatzairen inguruko proposamena burutzea, baizik eta kudeatzaileen sailkapen, identifikazio eta analisi burutzea.

- **UDALAK.**

Diagnosiaren abiapuntuan ikusi ahal izan den bezala, Debagoienako udalerrri guztiek ez dute ikuspegi berbera turismoaren sektorearekiko. Horietako batzuk, ikuspegi turistikoa duten estrategia bat landu dutela ikusi da; beste batzuk aldiz, ez maila berdinean.

Bestalde, udalerrri guztiek dute harremana Debagoiena Mankomunitatearekin. Hauek, bakoitzak duen herritar kopuruaren arabera diru ekarpenak egiten dituzte sektore turistikoaren garapenerako.

- Udal mailan harreman eta koordinazio gune ezberdinak antzematen dira, batetik kudeatzaile nagusien artekoa eta bestetik, bisitaria hartatzeko kudeaketa formula konkretuei dagokiona.
- Udalak dira Informazio bulegoen arduradunak.

Udal barneko kudeaketari dagokionean aldiz bi errealitate antzematen dira turismo garapenaren baitan. Kasu batzuetan, turismo teknikaria eta turismo departamentua identifikatzen den moduan, beste kasu batzuetan udal arduradunaren (politikaria) baitan kokatzen da. Azken kasu honetan, garapen turistiko ez hain garatua duten udalerriei egokitzen zaie.

- Turismo teknikarien papera Bergarako, Oñatiko eta Leintz-Gatzagako herrietan identifikatzen da. Aldiz, beste herri guztietan beste udal arduradun batzuk dira turismoaren ardura bereganatzen dutenak.
- Udaletxeen ezaugarri eta dimentsioak, alkatetzaren gain egiten du turismoaren jardura erortzea; Antzuola eta Elgetaren kasua esaterako. Beste kasu batzuetan aldiz, turismo teknikaria ez den beste teknikari baten gain (Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatza).
- Oñatiren kasuan, baliabide bati lotutako turismo ezaugarriek baldintzatzen dute hari dedikatutako langile kopurua. Beste udalerriekin alderatuz, langile kopuru ugariago bat dagoela ikusi daiteke. Oñatiko turismo bulego eta Arrikruz Koben artean, 7 langile daudela identifikatu da; bisitari kopurua ugariagoa den denboraldirako (uda denboraldian). Langile hauek, bisitarien harrera lanak, turismo informazioaren inguruko zerbitzu eskaintza eta bisita gidatuak egiten dituzte.
- Identifikatu den pertsonal kopuruaren zenbateko handiena bisitariari informazioa eskaintzeko kontratatua izan dela identifikatzen da. Zenbateko txikiago batean, planifikaziorako edota erabaki estrategikoak hartzeko pertsonala ere badago.


- Turismora bideratutako aurrekontuari dagokionean, eskualdeko udal bakoitzak turismorako ekarpen ekonomikoa burutzen dio Debagoienako mankomunitateari eta bestetik, aurrekontu propioak izaten dituzte. (lan honen baitan ezin izan da udal bakoitzaren aurrekontua lortu)

Debagoiena Mankomunitateari Ekarpinak	
Debagoiena Udalak	Ekarpen ekonomikoa (2021)
Antzuolako Udala	8.324,51€
Aretxabaletako Udala	28.433,74€
Arrasateko Udala	87.473,36€
Bergarako Udala	58.339,58€
Elgetako Udala	4.564,28€
Eskoriatzako Udala	16.525,01€
Leintz-Gatzagako Udala	844,05€
Oñatiko Udala	42.000€
Guztira	250.219,33€

Taula 4: Udalerri bakoitzak Debagoiena Mankomunitateari turismorako egiten dizkion ekarpinak. Iturria: Debagoiena Mankomunitatea aurrekontuak 2022.

4.1.2. Turismo kudeatzaile espezializatuak

Debagoienako turismo errealitatean identifikatzen diren agente estreategikoak direla esan dezakegu turismoa errealitatean kokatu eta ekintza turistikoa dinamizatzeaz arduratzen diren agenteak dira. Kasu honetan ondorengoak zehaztu dira;



Irudia 3: Debagoiena eskualdeko turismo kudeatzaile espezializatuak. Iturria: lanketa propioa.


- **Turismo Bulegoak.**

Gaur egun, Debagoiena Mankomunitatea barne hartzen duten herrien barruan, udalek zein toki entitateek eurek kudeatzen dituzten bulegoak eta informazio puntuak daude. Errealitate hori kontuan hartu beharreko gaia izango da, batez ere turismoaren gobernantzaren eta erakundeen koordinazioaren ikuspegitik.

Kudeatuak:	Mankomunitateak	Udalak	Enpresa pribatua
Guztira	1	1	3
Arantzazuko Informazio puntua	1		
Bergarako Turismo Bulegoa			1
Oñatiko Turismo Bulegoa			1
Eskoriatzako Turismo Bulegoa		1	
Leintz Gatzagako Turismo Bulegoa			1

Taula 5: Turismo Bulegoen kopurua eta katalogazioa / Lanketa propioa.

Bi kudeaketa eredu bereizten dira: kudeaketa zuzena Arantzazuko eta Eskoriatzako udalen kasuei dagokionean eta kudeaketa pribatuak, Bergara, Oñati eta Leintz Gatzagako kasuei dagokionean. Bigarren kasu honetan, Turismo Informazio bulegoak bestelako zerbitzuekin eta eskaintzarekin duen loturaren baitan zehazten dira. Zentzu honetan garrantzitsua izango da aurrera begira turismo informazio bulegoek egun duten papera eta funtzioen inguruko hausnarketak mahaigaineratzea.



Irudia 4: Debagoiena eskualdeko Turismo Bulego eta Informazio Puntuak. / Iturria: lanketa propioa.

- Turismo bulego bakoitzak udal egitura eta antolaketa mailaren baitako errealitateari erantzuten dio. Urte guztian zehar informazioa bilatzeko aukera badagoela esan badaiteke ere ez dago ordutegi edota egutegi bateraturik. Bulego batzuk, herrikako errealitateari erantzuten diote eta beste kasuetan garaikotasunari lotutako zerbitzua dela antzematen da. Turismo bulegoak, uda garaian, jai egunetan edo astesantuko zerbitzua eskainik.

- Turismo bulegoak, jarduera turistikoaren dinamizatzaileak dira kasu askotan, bisita gidatuak ... antolatuz. Kasu honetan gestio ereduekin lotura zuzena duela ikus daiteke.
- Ordu-tegiari dagokionean, kasu guztietan ordu-tegi zatitua topatzen da edota kasu batzuetan goizeko ordu-tegia soilik.
- Turismo bulegoetako pertsonalari dagokionez errealitate ezberdinak identifikatzen dira:
 - Batetik, kontratazio baten bitartezko langileak daude (Oñatiko Turismo Bulegoa, Bergarako Turismo Bulegoa eta Leintz-Gatzagako Turismo Bulegoa). Kasu hauetan, urtean zehar harrera lanak egiteko eta eskaintzari lotutako langileak izango dira.
 - Bestetik, turismo teknikariak eta beste udal teknikari batzuk identifikatzen dira. Kasu hauetan, teknikariak dira harrera eta eskaintzari lotutako lanak egien dituztenak. Pertsonalari dagokionez

TURISMO BULEGOAK	Pertsonala	Ordu-tegia	Egutegia
Oñatiko Turismo Bulegoa	<p>Kontratazioa: Oñatiko Udala</p> <p>Pertsona kopurua: Urtean zehar 2 langile.</p> <p>Uda denboraldian errefortzurako beste langile 1* (*ordu zehatzetan)</p>	<p>Udako ordu-tegia (Ekaina-Iraila): 09:30-14:00/15:30-19:00 egunero.</p> <p>Maiatzeko ordu-tegia: <u>Asteartetik ostiralera</u> 10:00-14:00/16:00-18:00 (astelehenak itxita). <u>Asteburuetan:</u> 09:30-14:00/15:30-19:00</p> <p>Neguko ordu-tegia: <u>Urritik apirilera</u> 10:00-14:00/16:00-18:00 (astelehenak itxita) *(Abenduak 24, 25, 31 eta Urtarrilak 1 eta 6 itxita)</p>	<p>Irekita urte osoan zehar astelehenak izan ezik.</p> <p>Uda denboraldian: irekita egunero.</p>
Arantzazuko Informazio Puntua	<p>Kontratazioa: Debagoiena Mankomunitatea</p> <p>Pertsona kopurua: Urtean zehar 3 teknikari (uda eta Aste Santua barne)</p>	<p>Uda eta Aste Santuko ordu-tegia; 10:00-14:00/15:00-18:30 egunero</p> <p>Urtean zeharreko ordu-tegia; 10:00-14:00</p>	<p>Uda denboraldian eta Aste Santuan: irekita egunero.</p> <p>Urtean zehar: astebukaera, jai egun eta zubietan soilik. Goizez.</p>
Bergarako Turismo Bulegoa	<p>Kontratazioa: Geurreri.</p> <p>Pertsona kopurua:</p>	<p>Udako ordu-tegia: <u>Astelehenetik larunbatera</u> 10:00-14:00/15:30-18:30 <u>Igande eta jai egunak</u> 10:00-13:30</p> <p>Urtean zeharreko egutegia:</p>	<p>Urte guztian zehar irekita dago.</p> <p>Uda denboraldian: asteen zehar egun osoa eta igande eta jai</p>

	Langile 1 harrera lanetan eta beste bat bisitak daudenean soilik.	<i>Atelehen eta astearteak itxita</i> <u>Asteazken eta ostegunetan</u> 10:00-14:00 <u>Ostirala eta larunbata</u> 10:00-14:00/16:00-19:00	egunetan goizez. Urtean zehar: astelehen eta astearteak itxita, asteazken ostegun eta igande goizez eta ostiral eta larunbatetan goiz eta arratsaldez.
Eskoriatzako Turismo Bulegoa	Kontratazioa: Eskoriatzako Udala Pertsona kopurua: Langile 1, Ingurumen Teknikaria	Ohiko ordutegia: <u>Astelehenetik ostiralea:</u> 9:00-14:00 <u>Abuztuaren 29,30 eta 31:</u> 10:00-14:00	Astelehenetik ostiralera irekintzen da. Astebukaera eta jai egunetan: itxita. Abuztuaren 1etik 26-ra itxita.
Leintz-Gatzagakako Turismo Bulegoa	Kontratazioa: Leintz-Gatzaga Udala Pertsona kopurua: Urtean zehar langile 1	Asteburu eta jai egunetan: 10:00-14:00 Aste Santu, uztaila eta abuztuan: egunero goizez soilik. <u>Azteazkenetik ostiralera:</u> 10:00-14:00. <u>Larunbat, igande eta jai egunak:</u> 11.30-14:30	Urtean zehar: astean zehar itxita dago. Asteburu eta jai egunetan irekintzen da soilik. Uda denboraldian: goizez soilik.

Taula 6: Debagoiena Mankomunitateko Turismo Bulego eta Informazio Puntuen pertsonal, ordutegi eta egutegia. / Lanketa propioa.

- **Museoak eta Interpretazio Zentroak:**

Jomugari egokitzen zaion eskaintza turistikoa elementu klabeak direla esan dezakegu. Bertako ondareari lotutako baliabide turistikoa dira eta kudeaketa turistikoa parte direla esan dezakegu naiz eta sektore pribatuari egokitutako eskaintza zehazten den batez ere beren lan jarduna. Azpimarratzekoa da agente sare zabala identifikatzen dela museo eta interpretazio zentruen kasuan eta eragile publiko eta pribatuaren arteko harremanetan oinarritzen dela.

- Egun 8 interpretazio zentro daude eskualdean eta erdiak Oñatiko herrian kokatzen dira.

ARRIKRUTZ (Oñati)



SAN MIGUEL ERROTA (Oñati)



TXOKOLATEIXA (Oñati)



GATZ MUSEOA (Leintz Gatzaga)



**ZUBIATE LABEA ETA IBARRAUNDI
MUSEOA (Eskoriatza)**




LABORATORIUM (Bergara)



**ELGETAKO INTERPRETAZIO ZENTRUA
(Elgeta)**



ARANTZAZUKO PARKETEA (Oñati)



- Eskaintzaren arabehera kudeaketa modu ezberdinak antzematen dira, kudeaketa publiko eta zuzena den kasuetan ez da eskaintza bisitan oinarritzen (Parketxe Sarean izan ezik) eta kudeaketa pribatua den kasuetan batez ere bisita gidatueta garatzen da eskaintza.
- Interpretazio zentruen finantziaketa udalek asumitzen dute; Arantzazuko Parketxearena izan ezik (Gipuzkoako Foru Aldundiak asumitzen du esleipen bidez). Udal guztiek aurrekontu bat daukate baliabideari esleitua.

- Eskaintzari dagokionean estruktura finkoak direla esan dezakegu eta tokiko ondare kultural eta naturalean dutela oinarria. Bereziki aipatzekoa da, ondare kulturalak eskualdean duen presentzia.
- Harremani dagokionean ez da sare edo antolaketa zehatzik identifikatu hauen artean.

4.1.3. Kontuan hartzekoak - **Gobernantza**



Elkarrizketak

- Turismo sareko agenteak ondo identifikatu eta sarea indartzeko beharra identifikatu da. Zenbait kasuetan gai sektorialagoak bultzatuz.
- Interpretazio zentro eta udal mailako strategiaren banaketa egitea ezinbestekoa sumatzen da kasu batzuetan.
- Implikazioa handitu eta dinamika berriak txeratzeko antolaketa eredu berriak mahai gaineratu behar dira.
- Sektore pribatuaren saretzea bultzatzea ezinbestelako da.
- Herritarrak planak egikaritzeko momentuan identifikatzen dira eragile modura soilik.

Taula 7: Eskualdeko eragileei egindako elkarrizketetaik gobernantzaren inguruan kontuan hartzekoak. / Lanketa propioa.

4.2. Zerbitzu turistikoak: **Zerbitzu espezializatuak**

Jomuga turistikoan bisitari zen turistei eskaintza eskaini eta sortzeaz arduratzen diren eragile bezala identifikatzen dira. Hortaz, zerbitzu gakoak direla esan dezakegu eta jomuga turistikoaren garapen maila eta izandako bilakaera aztertzeke klabeak dira. Zehazki, alojamendu eta turismo enpresan garapenean burutuko da azterketa batez ere turista eta bisitariari (ez bertakoei) egokituako zerbitzu eskaintza burutzen dutelako.

4.2.1. Ostatu turistikoak Debagoienan

Kategoria honetan, ostatuak helemuga bereizteko eragile nagusi bezala identifikatzen dira; hau da, enpresa turistikoak jarduera turistikoa garatzeko funtsezko eragile gisa. Horregatik, garrantzitsua da zerbitzu espezializatu hauen bilakaera ezagutzea Debagoienako Mankomunitatean gaur egungo errealitatea zein den ezagutzeko.

Analisi hau, Gipuzkoako turismo ostatu sailkapenean definitutako ostatu mota ezberdinetan oinarrituta egingo da (*Iturria: Euskadiko turismo-enpresa eta establezimenduen erregistroa*):

1. Hotelak, hotel-apartamentu eta pentsioak
2. Apartamentu Turistikoak³
3. Kanpinak eta beste kanpanketa-turismo modalitate batzuk
4. Nekazal Turismoak⁴
5. Landetxeak⁵
6. Arterpetxeak
7. Erabilera turistikoko etxebizitza osoa
8. Etxebizitza partikularretan logelaka
9. Autokarabana guneak. (*Ostatu turistiko sailkapenetik kanpo geratzen bada ere azterketaren baitan txertatzeko beharra ikusi da*).

Puntu honetan, urteetan Debagoienan ostatu turistikoek izandako eboluzioa eta bilakaera zein izan den aztertu nahi da irudi argiago bat izateko asmorekin. Aldiz, ostatu berrien irikitze eta istearen datuak urtero erregistratzen ez direnez, bi urte ezberdinen (2015 eta 2022) arteko eboluzioa aztertu da; ostatu turistikoen sektorean izandako aldaketak identifikatzeko helburuarekin.

³ Apartamentu Turistikoen modalitate aukera ezberdinen ondorioz, ikerketa honetan, apartamentu turistikoak bloketzat hartuko dira.

⁴ Apartamentuak eta logelak dituzten Nekazal Turismoen kasuan, bloketzat hartuko dira.

⁵ Euskadiko Turismo-Enpresa eta Establezimenduen Erregistroaren arabera, bordak, establezimendu mota honen barruan sartuko dira.

Azterketa honetan, ostatu kopurua herrika, ohe kopurua herrika, tipologia eta indikatzaile soziala izan dira aztertuak.

a. Ostatu kopurua herrika

Debagoienako eskualdean ostatu kopuruen hazkunde bat eman da 2015. urtetik gaur egunerate.

	TOTALA	OÑATI	ELGETA	ANTZUOLA	ESKORIATZA	BERGARA	ARRASATE	ARETXABALETA	LEINTZ GATZAGA
Ostatu turistikoen kopurua 2022	36⁶	13	3	1	3	3	8	2	3
Ostatu turistikoen kopurua 2015	32	9	3	1	2	4	6	3	4

Taula 8: Ostatu totalak 2015 eta 2022

Gaur egun, *Euskadiko Turismo-enpresa eta Establezimenduen Erregistroa*-ren arabera, **36 ostatu daude erregistratuta**, 2015ean baino 4 negozio gehiago, %12,5-ko hazkundera suposatuz. Udalerri bakoitzeko egungo ostatu kopurua aztertuz gero, Oñati da ostatu gehien biltzen dituen udalerria eskualdeko ostatu turistiko guztien %36,11rekin eta Arrasatek jarraitzen dio %22,2arekin. Gainerako kasuetan kopuruak mugatuak dira.

Arrasate eta Oñatiren kasuan gainera, gorazko joera antzeman den kasuak dira ostatu kopuruei dagokionean, gainerakoetan mantendu edota gutxitu egin den bitartean. Leintz-Gatzaga litzateke jaitsiera handiena izan duen herria, bi ostatu gutxiagorekin.

b. Ohe kopurua herrika

Eskualdeak ostatu hartzeko duen gaitasuna errazago ikusteko ohe kopuruak identifikatzea ezinbestekoa da. Egun 805 ohe eskaintzen ditu eskualdeak eta nabarmenak dira kasu honetan ere Oñati eta Arrasatek beste herriekin duten aldea. Bien artean, ohe kopuruaren %74,71a biltzen baitute.


	TOTALA	OÑATI	ELGETA	ANTZUOLA	ESKORIATZA	BERGARA	ARRASATE	ARETXABALETA	LEINTZ GATZAGA
Ohe kopurua 2022	825	441	30	12	36	51	164	29	42
Ohe kopurua 2015	713	328	36	12	32	55	150	41	59

Taula 9: Ohe kopuru totalak 2015 eta 2022. / Iturria: lanketa propioa.

⁶ Autokarabana guneak ez dira kontuan izan ostatu turistikoen kopuruaren baitan.

Herri bakoitzeko ohe kopuruen bilakaera aztertuz gero, Leintz-Gatzaga (17 ohe gutxiago), Aretxabaletan (12 ohe gutxiago) eta Elgetan (8 ohe gutxiago) eman direla jeitxierak identifikatu daiteke. Antzuola, Eskoriatza eta Bergararen kasuan ez da aldaketarik egon eta Oñati eta Arrasate izan dira bere ohe kopurua %28,96 eta %8 batean handitu duten bakarrak hurrenez hurren. Oñatiren kasuan, Arantzazuko Santutegiko Hotelaren berrirekitzeak, Etxeaundi Hotelak eta Araotzeko ostatuak eragin du ohe kopurua nabarmen igotzea.

Ohe kopuruaren eboluzioa 2015-2022



Grafikoa 1: Debagoiena eskualdeko ohe kopuruaren eboluzioa 2015-2022. / Lanketa propioa.

Ohe kopuruaren igoerak eta jaitsierak ostatu tipologia batzuei lotzen zaie zuzenean. Gorakada nabarmenena Oñatin izan dela antzeman daiteke; Arantzazuko aterpetxearen eta Araotzeko ostatuaren irekiera eta dagoeneko bertan zeuden ostatuak beraien ohe kopuruaren eskaintza handitu dutelako. Bestalde, ohe kopuruaren jeitxierak landetxeetan eman direla identifikatzen da; kasu batzuetan jubilazioa arrazoi izanda.

Ostatu eta ohe kopuruak jomuga turistikoaren garapen mailaren indikatzaileetako bat dira eta jomuga turistiko batek duen presioa aztertzeko baliagarria da. Ikuspuntu honetan, eskualdeak duen egoera aztertu da.

Indikatzailea	IA: 5 baino txikiago (Berdea)	IA: 5 eta 10 hartean (Horia)	IA: 10 baino handiago (Gorria)
100 biztanleko ostatu turistiko plaza kopurua	5 edo gutxiago	5 eta 10 artean	10 baino handiago

Egun, **1,24 ohe egongo lirateke 100 biztanleko Debagoienan**. Ondorengo taulan, 2021. urtean Debagoiena eskualdean araututako plaza kopurua 100 biztanleko kalkulatzen da:

Herriak	Ohe plaza kopurua	Biztanleak 2021 (Iturria: Euskadiko biztanleria, Eustat 2021)	Araututako plaza kopurua 100 biztanleko 2021
ANTZUOLA	12	2.146	0,56
ARETXABALETA	29	7.118	0,4
ARRASATE	164	21.729	0,75
BERGARA	51	14.804	0,34
ELGETA	30	1.121	2,6
ESKORIATZA	36	4.131	0,87
OÑATI	441	11.367	3,88
LEINTZ GATZAGA	42	226	18,58
DEBAGOIENA	783	62.642	1,24

Taula 10: Araututako plaza kopurua 100 biztanleko. 2021. / Lanketa propioa.

Orokorrean iraunkortasun indikatzaileen barruan kokatzen da ia herri guztietan. Leintz-Gatzaga-ren kasuan aldiz, egoera bestelako da indize gorrietan kokatuz. Ildo honetan, indikatzaileak ohe-plaza kopurua gutxitzea bideratzera baino, plaza kopuruak izan dezakeen bilakaera eta pertzepzio soziala kontuan hartzekoak izango dira.

c. Ostatu tipologia:

	OÑATI	ELGETA	ANTZUOLA	ESKORIATZA	BERGARA	ARRASATE	ARETXABALETA	LEINTZ GATZAGA	Guztira
Hotelak	6				1	3			10
Pentsioak	1					2	1		4
Apartamentu turistikoak	2							2	3
Kanpinak	<i>Ez da identifikatu eskualde osoan</i>								0
Nekazal turismoak	1	1	1		1				4
Landetxeak		1		2	1	2	1	1	9
Aterpetxeak	1								1
Erabilera turistikoko etxebizitzak	2	1		1		1			5
Autokarabana guneak	1	1		1	1	1			5
Guztira	14	4	1	4	4	9	2	3	43

Taula 11: Debagoiena Mankomunitateko ostatu tipologia 2022. / Iturria: Alojamen duen Erregistroa 2015-2022 (Debagoiena Mankomunitatea, 2022).

Debagoienako eskualdeko ostatu tipologiari dagokioneaz, Hotel eta Landetxeak dira kopurua aldetik aipagarrienak. Hotelei dagokionean, batez ere Oñati eta Arrasaten kokatzen direla ikusi dezakegu eta Landetxeen inguruan lurraldean zehar topa dezakegun tipologia dela eta kopuru aldetik hotelen antzekoa. Pentsioak, erabilera turistikoko Etxebizitzak eta autokarabana guneak dira kopuru aldetik hurrengoak naiz eta ez oso adierazgarria izan. Autokarabanan kasuari dagokionean, aipagarria da 5 gune identifikatu direla.

Autokarabana guneen ezaugarriak					
	Plazak	Mahai eta aulkiak	Komunak	Ur hargunea	Ur isurigunea (ur zikinak)
Oñati	18	x	x	x	x
Bergara	20	ez dira identifikatu	x	x	x
Elgeta	10	x	ez dira identifikatu	x	ez dira identifikatu
Arrasate	10	ez dira identifikatu	ez dira identifikatu	x	x
Eskoriatza	7	ez dira identifikatu	x	ez dira identifikatu	ez dira identifikatu

Taula 12. Debagoiena eskualdeko autokarabana guneen ezaugarriak. / Lanketa propioa.

Tipologiari egokitzen zaion ohe kopuruari dagokionean, hotelak dira nabarmen ohe kopuru altuena jasotzen duten ostatu tipologia (%65,2) eta Oñati eta Arrasaten kokatzen dira. Oñatiren kasuan, hotel ohe plaza gehien jasotzen dituen udalerrria da nabarmen. Antzuola eta Aretxabaleta dira ohe kopuru baxuenak aurkezten dituzten udalerrriak. %1,34 eta %3,25 hurrenez hurren. *Ohe kopuru total kalkulatzeko ez dira autokarabana guneak kontuan izan.

	OÑATI	ELGETA	ANTZUOLA	ESKORIATZA	BERGARA	ARRASATE	ARETXABALETA	LEINTZ GATZAGA	Guztira
Hotelak	308				29	114			451
Pentsioak	20					24	12		56
Apartamentu turistikoa	23							34	57
Kanpinak	<i>Ez da identifikatu eskualde osoan</i>								-
Nekazal turismoak	16	16	12		12				56
Landetxeak		12		32	10	24	17	8	103
Aterpetxeak	56								56
Erabilera turistikoko etxebizitzak	18	2		4		2			26
Autokarabana guneak	18	10		7	20	10			*
Guztira	441	30	12	36	51	164	29	42	805

Taula 13: Debagoiena Mankomunitateko ohe kopurua ostatu tipologiaren arabera. / Iturria: Alojamentuen erregistroa 2015-2022 (Debagoiena Mankomunitatea, 2022).

Turismo erregistro ofizialetan dauden ostatuez gain, plataforma digitaletan identifikatutako ostatuak etxe-trukeren filosofian oinarrituta (truke ekonomikorik ez dagoenean) zenbait eskaintza identifikatu dira. Homeexchange.org bezelako plataforman esaterako, **30 (162 ohe)** etxebizita ezberdin identifikatu dira.

- Erregistrotik gabeko ostatuak

Atal honetan, erregistro zenbakia identifikatu gabeko erabilera turistikorako etxebizitzak identifikatzen dira, oporretako alokairuko plataforma ezberdinetan (Aibnb, Hometogo, Homeaway...). **3** etxebizitza daude eta ezaugarri hauek dituztenak.

4.2.2. Turismo zerbitzu enpresak

Turismo enpresak helmugako turismo garapenerako funtsezko beste eragile gisa identifikatzen dira eta beharrezkoa da lan egiten duten eragin eremuak ezagutu eta identifikatzea Debagoiena Mankomunitateko turismo-errealitatea modu egoki batean ulertzeko. Puntu honetan, jarduera nagusia turismo aktiboko zerbitzuen edo turismo kulturalaren zerbitzuen eskaintza duten enpresak identifikatzen dira.

Horretarako, azterketa honetan, Debagoiena Mankomunitateko Turismo Erregistroko datuak aztertu nahi izan dira. Aldiz, ez dira datuak lortu ahal izan enpresa hauen eboluzio bat marraztu eta eskualdearen errealitatearen irudia urteetan zean zein izan den aztertu ahal izateko.

Bestalde, turismo ostatu eta turismo enpresen arteko lotura zuzena ezarri ezin bada ere, esan daiteke, turismo-jarduerak aukera berriak ireki ditzakeela eta turismo ostatuak jardueraren enpresen aliatu zuzena izan. Testuinguru horretan, etorkizuneko ikuspegia duten lan ildoak garatzea garrantzitsua izango da eskaintza bateratu bat osatu ahal izateko.

Gaur egungo enpresa turistikoen errealitatea Debagoiena Mankomunitatean 2022

Atal honen azterketa egiteko, Eusko Jaurlaritzako turismo erregistro ofiziala eta merkatariza erregistroa hartu dira kontuan.

Lurraldean turismo errealitateari lotutako jarduera desberdinak eskaintzen dituzten enpresak identifikatu dira, hauetatik soilik "Turismo aktiboko enpresa" moduan bakarra aurkitzen da (Mendixik - Mendi eta arroila gidariak).

Gainontzeko enpresak, nahiz eta beste sektore batzuetan erregistratuta egon (kultura, nekazaritza...) bisitariei bideratutako zerbitzu turistikoak eskaintzen dituzte eta beraz azterketan txertatu dira.

Debagoiena Mankomunitatean erregistratutako enpresa turistikoak:

Debagoiena Mankomunitatean turismo errealitateari lotutako jarduera ezberdinak eskeintzen dituzten 11 enpresa turistiko aurkezten dira jarraian. Enpresa hauek, bi taldetan bereizteko beharra ikusi da beraien jardueraren arabera: turismora zuzenean zuzentzen dutenak beraien jarduera eta beraien ohiko jardueretan turismo jarduerak txertatzen dituztenak.

- Turismora zuzentzen dutenak beraien jarduera:

Turismo enpresa	Herria	Zerbitzu eta ekintzak
Menditxik *Turismo Aktiboko Enpresa (Turismo erregistro Ofiziala)	Arrasate	Mendi eta arroila gidariak
Feel Euskadi	Arrasate	Ikastaro, hitzaldi, ibilbide historiko, artistikoekin, kultur ibilaldiekin eta espeleologia abenturekin Euskal kultur ondarea ikertzen eta zabaltzen espezializatuta. Bisita gidatuak edozein adin mota eta gaitasun mota guztientzako pertsonentzat daude diseinatuta.
Trotian	Aretxabaleta	Ibilbide ezberdinak egiteko aukera gurdi gainean paseoa eginda Urkuluko urtegiaren inguruak ezagutzeko. Aisialdi turismoa, familia planak, eskolentzako ekintzak eta arreta berezia behar duten kolektiboek zuzendutako eskaintza.
Gatzebike	Leintz-Gatzaga	Bizikleta elektrikoak edo E-bike-ak alokatuz, turismo natural eta kulturala egiteko aukera eskaintzen da ibilbide ezberdinak eginez.
Ugutz Tours	Bergara	Ondarea, historia, mendia eta natur ingurunea ezagutzeko bisita gidatuak.
Sigi Sagan	Arrasate	Oinez edo bizikletaz ibilbide gidatuak egiteko aukera eskaintzen ditu Euskal Herriko natur inguruetan, Arrasate gunetzat hartuta. Ibilbideak beharretara moldatu eta pertsonalizateko aukera ere eskeintzen da. Ibilaldiak, egun batekoak edo hainbat egunetakoak izan daitezke ere.

Oñatur Kooperatiba	Oñati	Arrikrutz kobetako kudeaketa arduraduna. Interpretazio zentroa bisitatzeko eta bisita gidatuak egiteko aukera.
--------------------	-------	--

Taula 14: Debagoiena Mankomunitatean jarduera turismora zuzentzen duten enpresak. / Lanketa propioa.

- Turismoko jarduerak beren ohiko jardueran txertatzen dituzten enpresak:

Turismo enpresa	Herria	Zerbitzu eta ekintzak
Elosua Benta Zalditegia	Bergara	Zaldi munduaren ezagutza transmititzea 10 urte inguruko umeentzako (aurretiko esperientziarekin). Zaldi ibilaldiak bakarka edo taldean hipika irakaslearekin. Egokitutako ibilbide ezberdinak sortzeko aukera.
Pottokaleku	Oñati	Asmo terapeutiko eta auto-ezagutza bilatzeko espazioa Naturaren erdian eta zaldiz inguratuta. Ekinoterapia, coaching, bisita gidatuak, tailerrak eta udalekuak eskeintzen dira baita ere.
Gomiztegi Baserria	Oñati	Lau jarduera nagusi aurkitu daitezke bertan: Artzain Eskola, artaldearen zainketa, artisau gaztagintza eta bisita gidatuak.
Zabolain Zalditegia	Arrasate	Ekitazio klase, ekino terapia, ibilaldiak zaldiekin, lauhazka azterketak, pony park-a eta apopilotza zerbitzuak eskeintzen dituen zalditegia.

Taula 15: Debagoiena Mankomunitatean turismo jarduerak beren ohiko jardueran txertatzen dituzten enpresak. / Lanketa propioa.

Debagoiena eskualdeko enpresa tipologiari dagokionez, turismora zuzentzen dutenak beraien jarduera, natur turismoarekin lotura zuzena dutela antzematen da (natur ondareari bisitak, tailerrak,...). Bestalde, turismoko jarduerak beren ohiko jardueran txertatzen dituzten enpresak, lehen sektoreari eta ongizateari lotutakoak dira.

Eskaintzaren azterketa bat egingo bagenu; ondorengo ezaugarri hauek dituela identifikatu daiteke:

- Eskaintzaren gehiengo haundi bat lehen sektorea eta naturarekin lotura dagoela identifikatzen da. Bestalde, ez da posible izan hauekin biltzea sektorearen inguruan eskaintzak duen errealitatearen argazki bat izateko. Eskaintza kulturalari dagokionean, bigarren mailakoa dela esan dezakegu.

- Eskaintza bi modu ezberdinetara garatzen da: enpresa turistikoko batzuk eskaintza propioa garatzen dute; beste batzuek aldiz, interpretazio zentroko kudeaketan aritzen dira.
- Enpresa turistikoeek eskaintzen dituzten zerbitzuak eskualde mailan eskaintzen dira; bestelade, badira eskualdetik kanpora beraien eskaintza bideratzen dituztenak ere. Sigi Sagan ibilbide gidatuak, Gatzebike eta Menditxik identifikatu dira zerbitzuak eskualdeko mugetatik kanpo eskaintzen dutenak.
- Arrasatek biltzen ditu enpresa turistikoko kopuru handiena (4). Oñatik (3) eta Bergarak (2) jarraitzen diote. Aretxabaleta eta Leintz-Gatzagan enpresa bana identifikatu dira eta Elgeta, Antzuola eta Eskoriatzan ez da enpresa turistikorik identifikatu.

Zerbitu turistikoen enpresa berrien eskaera

Ez da informaziorik lortu gai honen inguruan.

4.2.3. Kontuan hartzekoak - **Zerbitzu espezializatuak**



Elkarrizketak

- Eskaintza espezializatu indartu eta zabaltzeko aukera mahaigaineratzen da.
- Sektore pribatuaren parte-hartzea ahalbidetzea sektorearekin lotura duten erabakietan.
- Erakunde publikoak erraminta eta baliabide gehiago erraztea sinergia eta formakuntzaren garapen eta sendotzerako.
- Balibaideei lotutako zerbitzu eskaintzaren espezializazioa bultzatzea.

Taula 16: Eskualdeko eragileei egindako elkarrizketetarik zerbitzu espezializatuaren inguruan kontuan hartzekoak. / Lanketa propioa.



4.3. Zerbitzu turistikoak: **Zerbitzu osagarriak**

Nahiz eta jomuga turistikoetan garrantzitsuak izan, zerbitzu espezializatuetatik berezi nahi izan dira, jomugan duten papera ezagutzeko.

4.3.1. Jatetxeak.

Jatetxeak Debagoiena Mankomunitateko turismo sektoreko establezimenduen eskaintza osatzen duten beste tipologitako bat bezala jasotzen dira. Eta lehen esan bezala, jarduera hau zuzenean turismora bideratzen ez bada ere, biztanleak negozio mota honen bezero potentzialak direnez, helmuga turistikoaren garapenak ere eragina du, eskaintzaren parte bihurtuz.

Debagoiena Mankomunitateko Jatetxe kopurua	
2022 urtea	
Antzuola	3
Aretxabaleta	8
Arrasate	27
Bergara	17
Elgeta	3
Eskoriatza	3
Leintz-Gatzaga	2
Oñati	42
GUZTIRA	105

Taula 17. Debagoienako jatetxe kopurua.. / Iturria: Jatetxeen Erregistroa 2022 (Debagoiena Mankomunitatea, 2022).

Errestaurazio enpresa konzentrazio nabarmenena hiru udalerrri handienetan gertatzen dela identifikatu daiteke. Arrasatek, nahiz eta biztanle gehien dituen udalerrria izan, ez du zerbitzu osagarri mota honen enpresa konzentrazio handiena (27); Oñatik baizik (42). Bestalde, azpimarragarria da Oñatik duen konzentrazioa Bergararena baino ia bikoitza dela identifikatzea.

Sektoreko hainbat enpresen aldetik, adostasun bat dago non turismorako garapen tresna garrantzitsua den; hala ere, turismoaren garapen honek sortu ditzazken behar berriei erantzuteko zailtasunak identifikatu dira eskaintza ezberdindu berri bat sortzeko eta hauek dibertsifikatzeko momentuan.

Debagoienako jatetxeen eboluzioa eta hauetan dauden plazei buruzko informazioa lortzea ez da posible izan, Mankomunitatetik ez direlako datu hauek jasotzen eta aldi berean ez delako honen jarraipenik egiten ere. Beraz, ez da posible izan eboluzio baten irudia eta biztanleko edo turistako plazak irudikatu eta kalkulatu ahal izatea.

4.3.2. Bertako produktuak eta artisautza

Badaude lurraldean nortasun propioengatik eta eskaintzen dituzten produktuengatik bisitari eta turistentzat ezinbesteko bihurtu diren tokiak. Bertako ekoizle eta artisauei buruz ari gara neurri handi batean; hauek eskaintzen duten balio erantsiari esker, Debagoinea Mankomunitateko turismo eskaintzan leku bat aurkitu dutelako, interes handia sortuz lurraldeko tokietara urbiltzen diren bisitari eta turisten artean.

Debagoiena Mankomunitatearen kasuan, bertako ekoizleen lanaren emaitzaren kalitatezko bertako produktuak aurkitu daitezke: txakolina, eztea, txokolatea, gazta eta Aretxabaletako tomatea esaterako.

Txakolinari dagokionez, Debagoiena Mankomunitatean Getariko jatorri izena duten hainbat txakolindegi aurkitu ditzazkegu: Txakoli Belaskua (Oñati), Txakoli Kataide (Arrasate), Txakoli Murgialdai (Oñati) eta Txakoli Upaingoa/Marqués de Riscal (Oñati) besteak beste.

Aitzitik, arestian esan den bezala, gaztandegiak ere badaude: Gomiztegi baserria (Oñati), Ama Txo gaztandegia (Antzuola), Atxalde gaztandegia eta Ecológicos Mendibizu (Aretxabaleta). Kasu honetan, eskualdeko gazta ekoizleek, mota guztietako gaztak egiten dituzte; hala nola, Idiazabal jatorri deitura duen ardi gazta, behi gazta edo feta gazta. Halaber, produktu gastronomikoen salmentaz gain, gaztandegi hauetara bisitak egin daitezke, beti ere eskaerapean, non bisitariak soroetako lana, tradizio eta ohiturak, gazta egiteko prozesua eta elaborazioa ezagutzeko eta dastatzeko aukera izango duten.

Gainera, gaur egungo hainbat produktuk, Debagoineako tradizio eta historiari lotuta jarraitzen dute: Karapaixoa, Leintz Gatzagako gatza eta gozogintza (Txokolateixia eta Bergarako Wolfram Goxoa) esaterako.

Bertako ekoizleen nekazaritza produktuak, ekologikoak edota artusautzarenak erosteko eta dastatzeko aukera ere bada ego egiten diren asteko azokak, hileroko feria eta azoka eta azoka berezietan; baita ekoizpen guneetan zuzenean ere. Testuinguru honetan, tokiko nekazaritzari eta landa munduari lotuta, Debagoineako Jardunaldi Gastronomikoak proiektuak aurrera egin eta Debagoinea Gastronomika jarri zen martxan.

Zerbitzu turistikoak eskeintzen dituzten eragile ezberdinen analisia egin ondoren, hainbat dira bertatik egin ditzazkegun irakurketak:

1. Debagoienako herri guztiek ostatu turistikoen eskaintza badute ere, Oñati eta Arrasaten kokatzen dira gehienak eta antzematen denez, azken urteetako joera bertan indartzea izan da batez ere.
2. Kopuruei dagokionean, hotelek dute pisurik handiena, baita ohe kopuruei dagokionean ere. Bi herri hauetan, eskaintza nagusia hoteletan kokatzen da eta ohe kopuruari dagokionean nabarmena da hauen garrantzia. Leintz-Gatzagaren kasuan, arestian aztertu den bezala, iraunkortasun indizearen geinetik kokatuo litzateke.
3. Azken urteetan, erabilera turistikoko etxebizitzekin lotutako eskaintza berria zehazten dela identifikatu da. Aldi berean, autokarabanentzako guneek indar berezia hartu dute eskualdean; natura turismoko eskaintzarekin lotua batez ere. Bestalde, ez da kanpinik identifikatu eskualde osoan.
4. Jarduera turistikoko enpresei dagokienez, antzeman daiteke ez direla udalerrri guztietan kokatzen. Arrasaten aurkitu daiteke enpresa mota honetako kopururik handiena (4 enpresa). Bestalde, Eskoriatza, Elgeta eta Antzuolan ez dira jarduera turistikoko enpresarik identifikatu.
5. Enpresa turistikoei dagokionean, batez ere Naturara bideratzen diren turismo empresak direla ikusi dezakegu eta zehazki turismo aktiboan kokatzen dela hauen eskaintza Nagusia. Kultur eskaintzari dagokionean aldiz, hauek herrietako kudeaketa turistikoa (informazio edo interpretazio zentroetan kokatzen dira) duten paperaren baitan burutzen dituztela ikusi da.
6. Zerbitzu osagarriari dagokionean, astisau edo bertako produktuen eskaintzaz gain mapa turistikoa kokatzeko lana egin dela nabarmena da. Jatetxeei dagokionean aldiz, ezin izan da hauen inguruko informazio osaturik eskuratu.

4.3.3. Kontuan hartzekoak - **Zerbitzu osagarriak**



Elkarrizketak

- Ez da ekarpenik jaso eskualdeko jatetxe eskaintzaren inguruan; momentu puntual batzuetan, ordutegiarekin lotutako arazoren bat edo beste izan ezik.
- Enpresen zerbitzuak sortzeko, zabaltzeko eta eskariari bideratutako eskaintza espezializazioari lotutako hutsuneak mahaigaineratzen dira.
- Zerbitzu osagarriari bideratutako formakuntza ahalbidetzea.

Taula 16: Eskualdeko eragileei egindako elkarrizketetarik zerbitzu osagarrien inguruan kontuan hartzekoak. / Lanketa propioa.


4.4. Bisitariaren analisia

Atal honetan, Debagoienako eskualdeak jasotzen dituen bisitari eta turistaren perfil bat definitzea izango da helburua.


Arestian esan den bezala, jakina izan da Debagoiena Mankomunitatean datuen bilketa ez dela modu homogeneo batean egiten; horrek, aldi berean, perfil baten definiziorako zailtasunak eragiten ditu. Gainera, datuen bilketa osatu bat egiteko emandako zailtasunen kasuistikak, perfil honen definiziorako lanketa mugatu du neurri batean. Ondorioz, beste informazio iturri ezberdin batzuk erabiliz garatu da atala.

Erabilitako informazio iturriak:

- Arantzazuko Santutegiko Debagoienako Turismo eta Interpretazio Zentroa (2021. urtea).
- Txokolateixia Interpretazio Zentruko Bisita Gidatuen datuak (2022 urtea).
- Laboratorium Museoaren bisitarien datuak (2021 urtea).
- Arantzazu Lab (Gizarte Berrikuntzarako Laboategia) (2022 urtea).




Irudia 5: Txokolateixiako bisita gidatuen kontsumitzaileen profila. Iturria: Txokolateixia (2022).



Irudia 6: Arantzazu Zentruko interpretazio zentruaren bisitariaren perfila. Iturria: Arantzazuko Santutegiko interpretazio zentrua (2022).



Irudia 7: Laboratorium Museoa-ren bisitariaren perfila. Iturria: Laboratorium Museoa (2022).



Irudia 8: Arantzazu Lab Gizarte Berrikuntzarako Laborategia-ren erabiltzaileak. Iturria: Arantzazu Lab (2022).

Debagoiena eskualdeko espazio hauetara bertarutzen direnen profila aztertu ondoren, ondorioztatu daiteke:

- Espazioen bisitari nagusiena bertakoa dela antzematen da. Estatu mailako bisitaria da bigarren multzorik nabarmenena eta nazioarte mailan frantsesak dira nagusi.
- Adin tarteari dagokionez, adin ertain eta hirugarren adineko bisitari eta erabiltzaileak dira nagusi.
- Arantzazu Lab-en kasuan, perfil ezberdinetara bideratzen dute eskaintza urtarokotasuna hausteko asmoz. Ondorioz, puntu honetan ez da perfil zehatzik identifikatzen.
- Taldeen igoera bat somatu da 2022 azken hiruhilekoan sektorearen berreskuratzearekin batera (Oñatiko Udala, 2022).
- Ibarraundi museoak ikastetxeei bideratutako eskaintza du. Txangozaleak.
- Bisitariak motibazio ezberdinak dituela identifikatu daiteke; motibazio historiko-kulturalak eta naturalak dira nagusienak.
- Bisitarien erdiak (%53) gutxi gora behera besterik ez du informazio eskaera egiten Turismo Bulegoetan (Oñatiko Udala, 2022).
- Leintz-Gatzagako Gatz Museoaren eta Arrikruz Koben bisitarien datuak lortu ahal izan ez direnez (jatorria, alokatutako zerbitzuak, tipologia, etb), ezin izan da espazio honen erabiltzaileen profila aztertu.

4.4.1. Kontuan hartzekoak - **Bisitaria**



Elkarrizketak

- Bisitarien monitorizaziorako eta informazio bilketarako teknologia berriak aplikatzeko premia.
- Bisitarien fluxuak eskulde mailan banatzeko ekintzen definizioa.

Taula 17: Eskualdeko eragileei egindako elkarrizketetaik bisitarien inguruan kontuan hartzekoak. / Lanketa propioa.

4.5. Baliabide turistikoak identifikatzen

Debagoiena eskualdea osatzen duten herri ezberdinek, ondare natural eta kultural anitza dute. Atal honetan, eskualde osoan dauden turismo baliabide nagusien katalogoa egin da (ondarearen elementuak ez dira jasotzen). Horretarako, baliabide horietako fitxa bat osatu da (ikusi ERANSKINA I), non katalogazio elementu desberdinak zehatz mehatz aztertzen diren. Jarraian baliabide guztien zerrenda zehazten da tipologiaren arabera:

BALIABIDE KULTURALEN ZERRENDA					
1	Arantzazuko Santutegia	29	Laboratorium Museoa	57	Bergarako Besarkada: oroigarria
2	Arrikutz Oñatiko Kobak	30	Bergarako Udaletxea	58	Arrese Etxea
3	Hirigune historikoak	31	Bergarako Errege Seminarioa	59	Egino Mallea Jauregia
4	Sancti Spiritus Unibertsitatea	32	Dorletako Santutegia	60	Mariaren Lagundia
5	San Miguel Parrokia	33	Ignaziotar Lurraldea	61	Beheko Atea
6	Bidaurreta Monastegia	34	Leintz Gatzagako erdigunea	62	Arrasateko Udaletxea
7	Jauregiak, dorre-etxeak eta bestelako eraikuntza zibilak	35	Azkarate Marutegi	63	Andikano Loiola Jauregia
8	Leintz-Gatzagako jauregiak	36	Koldo Eleizalderen Jaiotegia	64	Atxorrotx
9	Ertaroko San Miguel Errotako Interpretazio Gunea	37	Olaso Jauregia	65	Ondarza Dorrea
10	Aretxabaletako Udaletxe Zaharra	38	Jauregi Etxea	66	Izagirre Moia
11	Arratabe Jauregia	39	Aroztegi Etxea	67	Errenazimenduko Fatxada
12	Otalora Jauregia	40	Errosario Santuko Ospitala	68	Zuloaga Etxea
13	Arkarazo Jauregia	41	Gastañaudi Etxea	69	Errekalde Jauregia
14	Otaolako Dorretxea	42	Kanpaigintza	70	Okendo Jauregia
15	Galartzako Dorretxea	43	Elorretako Errota	71	Albeka Zahar
16	Antzuolako Udaletzea	44	Eskoriatzako Alde Zaharra	72	Iturri Zahar
17	Kalbarioko gurutzeak	45	Aretxabaletako parrokia	73	Zalbidegoitia Jauregia
18	Abridio Etxea	46	Moiua Barrena	74	Zubietako Labea
19	Bañez Artazubiaga Jauregia	47	Laureaga Jauregia	75	Iturrioz atea
20	Ferrerias Kalea	48	Ozaeta Jauregia	76	Santa Maria Eliza
21	Olarteko Atea	49	Moiua Dorrea	77	Jose Aranaren Panteoia
22	Monterron Jauregia	50	Gabiria Dorrea	78	San Pedro Eliza

23	San Frantzisko Eliza eta Komentua	51	Hiribilduko etxeak	79	Eskoriatzako Udaletxea
24	Agirreko Garaia	52	Mendia Jauregia	80	Ariznoako San Pedro parrokia
25	Oxirondoko Santa Marina Parrokia	53	San Juan Batailatzailearen Parrokia	81	12 tutuko iturria
26	Garro Jauregia	54	Soran Jauregia	82	Elexalde Jauregia
27	Ostatu Jauregia	55	Leintz-Gatzagako Udaletxea	83	Gatz Museoa
28	Santa Krutz Ermita	56	San Millan Eliza		

Taula 18: Debagoienako baliabide kulturalen zerrenda. Lanketa propioa.

BALIABIDE NATURALEN ZERRENDA	
83	Aizkorriko Parke Naturala
84	Urkuluko Urtegia
85	Vasco Navarro Bide Berdea
86	Dolmenen Ibilbidea: Elosua-Plasentzia estazio megalitikoak
87	Arrikruz Kobak
88	Lorategi eta parkeak

Taula 19: Debagoienako baliabide naturalen zerrenda. Lanketa propioa.

BALIABIDE GASTRONOMIKOEN ZERRENDA	
89	Aretxabaletako tomatea
90	Bertako produktuak: azokak, etab.

Taula 20: Debagoienako baliabide gastronomikoen zerrenda. Lanketa propioa.



Irudia 5: Uda 2022. Bizi
 Debagoienako Natura Familia. /
 Iturria: Debagoiena Turismo.


Zentzu horretan, ondoko lerroetan aztetutako baliabideei buruzko gakoak zehaztu dira:

4.5.1. Baliabide turistikoen tipologia

Aztertutako baliabideetan ikusi daitekeen moduan, eskualde mailan batez ere kultur ondareari lotutako baliabideak dira ugariak (%84,6) eta hauen artean Jauregi eta Dorretxe azpitipologiakoak dira nagusienak.

Baliabide naturalei dagokionez guztiaren %7,7-a suposatzen dute, turismo testuinguruaren barruan balio eta adierazgarritasun handiko leku eta natur enklabeak identifikatu dira. Aizkorriko Parke Naturala, Jarutabe Gunea eta aztarna arkeologikoak nabarmentzen dira.

Baliabide gastronomikoan kasuan, (hauen sailkapenaren baitan baldintzatuak) gutxienak lirateke gaur egun.




Grafikoa 2: Baliabide Turistikoen Tipologia. Lanketa propioa.

Plaza, oroigarri eta baliabide naturalak ere baliabideen artean nabarmentzen dira. Inguruko errota, industria eta gastronomiarekin lotutako festa eta tradizioak ere nabarmentzen dira baliabideen artean, eskualdeko nortasuna definituz.

Jarraian, baliabide tipologia nagusien baitan identifikatzen diren azpitipologiak identifikatzen dira:

BALIABIDE KULTURALEN AZPITIPOLOGIAK




Grafikoa 3: Baliabide Turistikoen Azpitipologiak. Lanketa propioa.

4.5.2. Baliabide turistikoen kokapena

Identifikatutako baliabideen %30,8a Bergarako udalerrian kokatzen direla ikusi daiteke. Bigarren udalerrri handiena izanik tamaina eta biztanlerian, erakargarritasun turistikoko erreferenteak ditu: Laboratorium Museoa eta Seminarixoa esaterako.

BALIABIDE TURISTIKOEN KOKALEKUA



Grafikoa 20: Baliabide turistikoen kokalekua udalerrrika. Lanketa propioa.

Tokien araberako sailkapenean, hedaduragatik edo lurralde osoarekin duten loturagatik bereiziki inongo tokirekin bat ez datozen baliabideen zerrenda ere gehitu da:

- **Vasco Navarro Bide Berdea**
- **Aizkorri Parke Naturala**
- **Ignaziotar Lurraldea: Hiru Tenpluen Ibilbidea**
- **Dolmenen Ibilbidea**

- Euskara
- Bertako produktuak (gaztategiak)
- Gastronomia
- Artisautza
- Festa eta tradizioak
- Hirigune historikoak (arkitektura tradizionala)
- Paisai berdea, haranak, mendiak eta klima.

Lau baliabide orokor hauen balioa eta potentziala dira Debagoienaren erakargarritasun eta aldarrikapen nagusiak. Hauek dira bisitariak gehien identifikaltzen dituzten elementuak eta eskualdearen irudimen kolektiboaren muinaren parte dira.

4.5.3. Baliabide turistikoen hierarkia

Jakina da baliabide turistikoen garrantzi eta erakargarritasun maila ez dela berbera; horregatik, eta inbentarioari buruzko ikuspegi sailkatuago bat lortzeko helburuarekin, erakarren turistikoaren potentziala eta ezaugarri bereziak zehaztu dira. Horretarako, 0 eta 3 arteko puntuazio tartea ezarri da.


Puntuazioaren azalpena:

3: Aparteko ezaugarriak dituen baliabidea, bisitariak bere kabuz erakartzeko gai dena.

2: Aparteko ezaugarriak dituen baliabidea, beste baliabide batzuekin batera bisitariak erakartzeko gai dena.

1: Ezaugarri aipagarriren bat duen baliabidea, beste arrazoi batzuegatik helmugara dagoeneko bidaiatu duten bisitariak erakartzeko gai dena.

0: Aurreko edozein mailatan egoteko gaitasun nahikorik ez duen baliabidea.



Grafikoa 21: Baliabide Turistikoen Hierarkia maila. Lanketa propioa.

Aipatu beharra dago, Identifikatutako baliabideei puntuak emateko garaian, ondorengo irizpideak jarraitu direla: 2-ko puntuazioa jasoko dute bisita gidatu baten barruan dauden baliabideak. Bestalde, nahiz eta bisita gidatu baten barruan egon, ez bisitagarriak diren baliabideei (jauregiak gehienbat) 1-eko puntuazioa izango dute. Baliabide guztiek izango dute 1-etik gorako puntuazioa.

1 eta 2-ko puntuazioarekin baloratu diren baliabideen kopuru altuak adierazten du garapen-ahalmen handia dagoela, baliabide horien inguruan girotzeko eta indartzeko neurriak proposatu daitezkeela turismo profesionalizatu bateruntz bideratzeko. Baliabide horietako asko turismo testuinguruaren barruan zerbitzuak eskaintzen dituzten baliabide edo ekipamendu osagarriei dagozkie, edo momentuz turismo-garapen edo esku-hartze zehatzik izan ez duten baliabide historiko-kultural batzuei edo erakarpen-ahalmen mugatua duten baliabideei. Azpimarragarria da, ia baliabide guztien ia erdia (%41,7-a) ez dela bisitagarria edo ez duela aparteko ezaugarriarik bisitaria bere kabuz soilik erakartzeko.

Bestalde, aparteko ezaugarriak dituzten baliabideak, guztien %5,2a besterik ez dira; hau da, bisitariak bere kabuz erakartzeko gai diren baliabideak. Batez ere, udalerrri eta baliabide horien identitatea balioesten duten elementuak dira eta gaur egun inguruko turismo-eskaintza nagusian oso integratuta daudenak: Arantzazuko Santutegia eta Aizkorri Parke Naturala esaterako.

Jarraian, bisitariak bere kabuz erakartzeko gai diren baliabideak zerrendatzen dira:



Irudia 6 : Debagoiena Mankomunitatean bere kabuz erakartzeko gai diren baliabideak. / Lanketa propioa.

4.5.4. Baliabide natural eta kulturalen babes maila

Gipuzkoa osoan aurki ditzazkegu balio ekologiko eta paisagistiko handia duten naturgune ugari eta Debagoienako eskualdea horren adierazle da baita ere. Balio handiko naturguneak dituen eskualdea da eta babestutako espazioak aurkitu ditzazkegu bertan: Aizkorriko Parke Naturala (Red Natura 2000), Arrikruz Kobak (LIG, Interes Geologikoko Gunea), Urkuluko urtegia, Ignaziotar bidea, mendi ibilbide ezberdinak eta baliabide arkeologikoak (Domenen Ibilbidea) esaterako.


Kultura baliabideen babes-mailaren azterketa hain zehatzik egin ez bada ere, balio handiko ondare historiko-artistikoko eskualdea dela ikusi daiteke. Interes kultural eta artistikoko ondasunak nabarmentzen dira; hala nola: Arantzazuko Santutegia, Santi Spiritus Unibertsitatea, Bergarako Errege Seminarioa, Laboratorium Museoa, etb.

Baliabide hauek guztiak turismoaren ikuspuntutik maila berean modu berean garatu ez diren harren, nabarmentzekoa da hauetan guztietan turismo jarduerarengandik babesteko eta kudeatzeko mekanismoak ezarri eta koordinatzearen garrantzia.



4.5.5. Baliabide turistikoaren titulartasuna eta kudeaketa erakundeak

Baliabideen %50ak gutxi gora behera jabetza pribatua du eta %50ak jabetza publikoa. Jabetza pribatua duten baliabideen %100-ak, kudeaketa pribatua du. Bestalde, jabetza publikoa dutenen %12,5ak kudeaketa pribatua du eta %87,5ak publikoa.



Grafikoa 22: Baliabide turistikoaren jabetza. Lanketa propioa.

Jabetza publikoko baina kudeaketa pribatuko baliabideei dagokienez, Oñatiko Arrikruz Kobak eta Laboratorium Museoa daude. Kobetako kudeaketa udalak egiten du esleipen baten bitartez. Momentu honetan Oñatur Kooperatiba da hauen kudeaketaren arduraduna. Bestalde, Laboratorium museoari dagokionez, Geuerri enpresa da gida eta harrera lanak egiten dituenak. Kontratazioari dagokionez, museoak eta udalak egiten dute aldi berean.

4.5.6. Baliabide turistiko eta produktu turistikoen arteko harremana

Turismo produktuen kopurua kontuan hartuko bagenu, baliabide kultural eta naturalak dira turismo-garapen handiena aurkezten dutenak. Baliabide horiei lotutako produktu turistiko gehienak bisita gidatuak direla antzeman daiteke; modu orokorrean, baliabideen inguruan egiten direnak.

Bestetik, zenbait kasuetan, Arrikruz Kobak, Aizkorriko Parke Narturala eta Arantzazuko Santutegia, esaterako, baliabidea bera produktua dela identifikatzen da; garrantzi handia eta ezaugarri bereziak dituztela beraien baitan.

Azkenik, nolabait esateko, Debagoienako hainbat baliabide turistikok balio handia, adierazgarriak eta oso integratuta daudenez, horietako batzueran masifikazioa arazo bat da dagoeneko urteko zenbait momentu puntaletan; horrek zuzenean eragiten die baliabidearen beraren kudeaketari, mantentzeari eta hondatzeari.

4.5.7. Baliabide turistikoen inguruan ematen diren masifikazio arazoak

Elkarrizketatutako eragile ezberdinek helarazi duten bezala, Debagoiena eskualdeko baliabide turistiko batzuetan masifikazio arazoak nabarmenak izaten hari dira gaur egun. Arazo hau, tokiko eragileei egindako elkarrizketatik jakin izan den bezala, Jaturabe gunean eta Arantzazuko Santutegian ematen da. Bestalde, egoera hauek momentu oso zehatzetan ematen direla zehaztu da.

Jaturabe gunearen kasua da beste bestarekin alderatuz bereziki nabarmentzen dena. Kasu honetan, bisitarien fluxuak murrizteko asmoarekin, baliabidearen promozioa egiteari utzi zaio; hau babetseko helburuarekin. Aldiz, eragileek adierazi duten bezala, ez du askorako balio izan. Puntu hauetan, jendearen emaria kontrolatzeko kontagailuak edo ekintza zehatzagoak ezartzearen beharra identifikatuko litzateke; hauek, baliabideengan duten eragina kuantifikatu eta arazoak konpontzeko ekintza eta sarbide-protokoloak diseinatu ahal izateko.



Irudia 7: Aitzulo, Oñati. Masifikazio arazoak.

4.5.8. Kontuan hartzekoak - **Baliabide turistikoak**



Elkarrizketak

- Masifikazio arazoak ekiditeko mekanismo eta erraminten diseinu eta inplementazioa.
- Baliabideen mantenua indartu eta balio katean barneratzeko ekintzen indartzea.
- Baliabideen irisgarritasun maila handitzeko ekimenen sendotzea.

Taula 21: Eskualdeko eragileei egindako elkarrizketetaik baliabide turistikoen inguruan kontuan hartzekoak. / Lanketa propioa.

4.6. Produktu turistikoak

Debagoienako produktu turistikoen azterketari (ikus ERANSKINA II) dagokion hurrengo atalerako, "Turismo Debagoiena" (Debagoiena Mankomunitatea, 2022 udazkena) web orrialdea eta lurraldeko eragileen ekarpenak erabiliko dira oinarri bezala.

Honela ulertzen da produktu turistikoa: elementu materialen eta inmaterialen konbinazioa, hala nola baliabide naturalak, kulturalak eta antropikoak, baita interes elementu jakin baten inguruko erakargarritasun turistiko, instalazio, zerbitzu eta jarduerak, helmuga baten marketin-planaren funtsa adierazten duena eta turismo esperientzia integrala sortzen duena bezero potentzialetan elementu emozionalekin. Produktu turistiko bat abanketa kanalen bidez merkaturatzen da, prezioa ere ezartzen dutenak eta bizi zikloa du (OMTaren definizioa).

Garrantzitsua da dokumentu honetan ikerketaren garaian zegoen errealitatea solik katalogatu dela. Katalogazio honen helburu da, hain zuzen ere, ahuleziak eta/edo aukerak identifikatzeko tresna gisa balio izatea eta unean geratzen ari diren produktu ezberdinen bidez helmugaren kokapena aztertzeko gai izatea (egungo eskaintza hobeto sailkatzeko, enpresa pribatuek kudeatutako produktuak eta sustapen publikokoak bereizita aztertu dira).

Azterketa honetarako, ikerketa-ildo ezberdinak identifikatu dira:

4.6.1. Produktuekin identifikatutako segmentu turistiko nagusienak

Jarraian irudikatuko diren tauleran, eskualde mailako produktuekin identifikatutako segmentu turistiko nagusiei egingo zaie aipamena.

Eskainitako Produktu Kulturalak	Titulartasun publikoko produktuak	Titulartasun pribatuko produktuak
20	14	6
Produktuarekin lotutako interesdun elementu espezifikoak		
Bisita Gidatuak	20	

Taula 22: Eskainitako produktu kulturalen kopurua./Lanketa propioa.

Turismo Kultureleko Produktuak⁷	
Arrasate bisita gidatua	Ertaroko San Miguel Errotako Interpretazio Gunea Bisita Gidatua
Bergara Monumentala	Arantzazuko Santutegia
Laboratorium + Bisita Gidatua	Emakume Ahaztuak
Laboratorium + Olaso Dorrea	Kulturola
Lorategi historikoak	Oñati "El Saber No Ocupa Espacio"
Dorleta	Al Abrigo de Udalatx
Ezkutuko Altxorrak	Ikasteentxako Bisitak
Eraikin bakar baten bisita egiteko aukera	Gerra Zibilaren Bisita
Oñati Irisgarria	Gomiztegi Baserria
Oñati Monumentala	Debagoiena lurraren zapoak
Ibarraundi Museoa	Leintz-Gatzaga Museoa

Taula 23: Eskaintzen diren produktu kulturalak. Lanketa propioa.

Produktu kulturalen sailkapenean, museo eta interpretazio zentroak ez dira kontuan izan (eskaintza fijoak) bestelako eskaintzatik bereiztu eta produktuen identifikazio eta emaitzak distorsionatu ez daitezzen ekiditeko.

Eskaintako Produktu Naturalak	Titulartasun publikoko produktuak	Titulartasun pribatuko produktuak
24	19	5
Produktuarekin lotutako interesdun elementu espezifikoak		
Mendi ibilbideak	15	
Kobak	4	
Zalditegiak	3	
Bisita Gidatuak	4	

Taula 24: Eskaintako produktu naturalen kopurua. / Lanketa propioa.

⁷ Museo eta Interpretazio Zentroak ez dira kontuan izan eskaintza fijoaren parte direlako.

Turismo Naturaleko Produktuak	
Mendi ibibideak (irteerak)	Ibilaldi Gidatuak Aizkorri Aratzen
Interpretazio Gunea eta Ibilbide Geologikoa	- Pagotxoren Bila
Arrikruz Espeleo Txiki	- Arantzazu Ezagutuz
Arrikruz Galeria 53. pasarelaren bisita	- Meteorologo Egun Batez
Espeleo Arrikruz Abentura Koban	- Pago Motz Naturaren Gordailu
Hezkuntza Eskaintza	- Lanbide Zaharrak Ikazkinak
Bisita Gidatua Parketxean	- Artzaintza Gertu Gertutik
Arantzazu Ezagutuz Ibilaldia Gidatua	- Ezagutu Uraren Bidea
Urkulu-Arantzazu	- Zer Da Fenologia
Paseoak Zaldiz	Dolmenen Ibilbidea
Visitas Guiadas a los Pottokas	Geoazkorri
Urkulli Natur Gunean Gurdi Gainean	Bizikleta gavel irteerak
Ignaziotar Ibilbidea	

Taula 25: Turismo naturaleko produktuen zerrenda. / Lanketa propioa.

Eskainitako Produktu Gastronomikoak	Titulartasun publikoko produktuak	Titulartasun pribatuko produktuak
10	8	2
Bisita Gidatuak	7	
Jardunaldi eta azokak	3	

Taula 26: Eskainitako produktu gastronomikoak. / Lanketa propioa.

Turismo Gastronomikoko Produktuak	
Gatz egile egun batez familian	Txokolatea, jakien jaki ona
Debagoiena Gastronómica	Gastronomia Jardunaldiak
Gatz eguna	Gastronomia eta Lurraldea: lurraren zaporeak
Artaldearen maneiua eta gaztagintza Amatxo gaztandegian	Kakao zakuaren bidaia/abentura.
Gatzaga: Urre zuriaren paisaia	Gomiztegi baserria: artzaintzaren eta gaztagimtzaren sekretuak

Taula 27: Eskainitako Produktu Gastronomikoak. / Lanketa propioa.

Produktu turistikoen analisia egin ondoren, ezaugarri orokor hauek dituztela identifikatzen da:

- Produktu turistikoak sektore publikoak kudeatzen ditu batez ere. Zentzu honetan, produktu kultural eta natural ugari elkarrekin uztartzen direla adierazi behar da. Produktu naturalen artean, mendi ibilbideak eta espeleologiari lotutako produktuak dira nagusienak; hara ere, beste izaera batzuko produktuak ere identifikatu dira, zaldiekin eta paisaiarekin lotutakok izan ere. Produktu kulturalen artean ondare historiko kulturalari lotutako bisita gidatuak identifikatzen dira ugariak.
- Xede taldeei dagokionez, orokorrean, produktu guztiak publiko orokortu bati zuzenduta daude; segmentazio maila baxu batekin. Ikasleei zuzendutako produktuak ere identifikatzen dira.
- Erakunde publikoetatik sustatzen eta eskaintzen diren produktuak, **urteko proposamen bezala** sailkatzen dira gehienbat. Bestalde, enpresa pribatuek urtarokotasun maila altuagoa erakusten dute edo ez da zehazki zehazten produktuen epealdia.
- **Erreserbei eta merkaturatzeari** dagokionez, produktuen ehuneko handi batek erreserba online eta telefonoz egiteko aukera eskaintzen dute; bai sektore publikotik sustatutakoak baita sektore pribatukoak ere. Egia da, sektore pribatuko zenbait produktuk ez dutela aukera hori eskaintzen. Hala ere, orokorrean, irisgarritasun maila altua islatzen dute. Bestalde, produktu gehienek, aurrez aurretiko nahitaezko erreserba bat eskatzen dute.
- Produktuen arteko harremanei dagokionez, Geoaizkorri eta Olaso Dorrea Fundazioaren lankidetzak eta parte hartzea haztatzen da.
- Iraupena, prezioa edo eskaintako hizkuntza produktu bakoitzari lotutako ezaugarriak dira. Kasu gehienetan kontuan hartuta, eragile publikoak sustatutakoak direla eta oso prezio baxuan oinarritzen eskaintzak direla. Eskaintza garestien artean, egun bat baino gehiagoko produktuak (2 egun) edo turismo aktiboari lotutako jarduerak daude. Jarduerak eskaintzen diren hizkuntzei dagokienez, kasu gehienetan, informazioa hizkuntza ezberdinetan aipatzen edo identifikatzen da; baita zerbitzua beste hizkuntza batean jasotzeko aukera ere. Hizkuntza nagusienak euskara eta gaztelera dira.

- Ezaugarri nagusi bezala, 30 eta 60 minutu bitarteko iraupena dute eta adin tarte guztiei zuzenduta daude. Kasu gehienetan, bisita alde aurretik erreserbatu behar da, bisita behar bezala gauzatzeko. Beraz, oso iraupen laburreko eskaintzak zehatzen dira.
- Irteera bakoitzeko gutxieneko talde kopurua 4 pertsonetan identifikatu da; beraz talde txikiei zuzendutako eskaintzak ere bideratzen dira. Bestalde, badaude 11 pertsonetik gorakoentzako prestatutako produktuak. Edonola ere, ezaugarri horiek produktuak berak eskaintzen duen errentagarritasun-ahalmenari baldintzatutako zaiola ulertzen da.
- Produktuekin lotutako beste zerbitzu batzuk: turistekin zuzenean lotuta ez dauden arren, gaur egun turismo-eskaintzaren eragileek eskaintzen dituzten eskaintza batzuk nabarmentzea pentsatu da. Kasu honetan, enpresentzeko jarduerak edo azpiegiturak proposamen adierazgarri bat dira; nahiz eta zentzu horretan ez den eskaintzarik identifikatzen.

4.6.2. Kontuan hartzekoak - **Produktu turistikoak**



Elkarrizketak

- Eskaintza espezializatua sortu, indartu eta zabaltzeko aukera eta beharra mahaigaineratzen da; familia turismoan batez ere.
- Sektore pribatuaren arteko lankidetzak indartzeko eta produktuak sortzeko mekanismoen diseinua garatzea.
- Produktuen estrukturatzea eta eskariari modu zehatzago batean bidertatu.



Irudia 8: Karapaixoa. Bertako produktuak.

5. Lurraldearen posizionamendu turistikoari buruzko hausnarketa

Merkatu turistikoen egungo ingurune globalizatuan, helmuga turistikoek biziraupen zaila dute, non lehiakortasun eta berezitasun estrategiek euren ibilbidea markatu dezaketen. Atal honetan, beraz, helmugaren egungo posizionamendua aztertzen da, helmugaren gaur egungo estrategietan eta bertako garapenean parte hartzen duten adituen iritziei arreta berezia jarritz; lurraldearen ikuspegi integral bat dutelako hain zuzen ere.

Hori dela eta, helmugako arduradun nagusiez gain, bertako teknikari, ostatu, jatetxe eta enprekin lan egin dugu. Lanaren ezaugarriak eta epeak direla eta, ezin izan da azterketa hau guztiz osatu dezaketen hainbat alderdi aztertu; kontuan izanda, turismoaren posizionamendua termino jasangarrietan ulertzeko bertako biztanleriaren eta turistaren inpresioak ere ezagutu behar direla. Analisi-elementu horiek hausnarketarako sakontasun handiagoa eta egungo errealitatera hurbiltzea eskaini dezakete helmugaren posizionamenduari dagokionez.

5.1 Gaur egungo estrategia

Gaur egun, Debagoienako eskualdean, turismo kudeaketa artikulatzen duen organo kudeatzaile bakarra dago, Debagoiena Mankomunitatea. Aldi berean, udal bakoitzean turismo teknikari bat ez izateak eta herri bakoitzaren baliabide eta ezaugarriak ezberdinak izateak, zaildu egiten du neurri batean lurralde osoan proiektzio bateratu bat duen turismo estrategia egituratu bat egoki garatzea.

Puntu honetan, Debagoienako eragile ezberdinekin egindako elkarrizketetatik atera den bezala, baita bilera parte hartzaile saioetan eta egoeraren diagnostikoan egindako analisi ezberdinen bitartez ere, Debagoiena helmugak, modu orokor batean erantzuten die landa, natura eta kultura turismoarekiko posizionamenduari lotutako planteamenduari. Jasotako planetan adierazita ikusi diren azken urte hauetako ekintza ezberdinek, bi turismo segmentu horiek indartzera bideratu dira; sektore publiko zein pribatutik ere.

Posizionamendu horren elementuak apur bat gehiago ulertzeko helburuarekin, eskualde mailako espazio ezberdinen 2022 urteko erabiltzaile eta bisitarien datuak aztertu dira. Eskualde osoari dagokionez, izaera orokorreko motibazio asko identifikatu direnez, ez da posizio zehatz bat identifikatzen. Aldiz, arestian esan den bezala, motibazio historiko-kultural eta naturalak dituzten kopurua dira esanguratsuenak.

Produktu turistikoen inguruko posizionamenduari dagokionez, Debagoiena eskualdearen barruan, garapen ezberdinak identifikatzen dira aztertutako eskaintzaren arabera. Bisitariak eta turistek produktu kopuru gehiago aurki ditzazkete Oñati, Arrasate eta Bergaran; bai herri bakoitzeko eskaintzaren bitartez baita lurraldeko zirkuitu ezberdinen bitartez ere. Gainontzeko herriei erreparatuz, Leintz-Gatzaga eta Aretxabaletara bideratzen da eskaitza batez ere.

Jarraian, helmuga espezializatu den produktu nagusiak identifikatzen dira:

- **Turismo kulturala:** Debagoienako ondare historiko-artistikoak bere nortasun propioa konfiguratzeko du beste eskualdekiko. Helmugak bere ezaugarri kultural, arkeologiko eta zientifikoak ditu, horrek bihurtzen du helmuga turistentzako puntu erakargarri. Turismo kulturalak gainera, turismo gastronomikoa hartzen du bere barne, bertako produktuetan oinarrituz (nekazaritza, gaztategiak, produktu tradizionak eta gozoak).
- **Natura eta landa turismoa:** Debagoienak, aparteko eskaintza naturala du. Balio izugarria duten ekosistema eta ingurune naturalak jasotzen dituelako bere baitan. Izan ere, natur eta landa turismoa da bisitarien erakarpen eta motibazio aldetik garrantzi handiena duen turismo segmentua. Paisaia, landa ingurunea eta ondare naturala dira helmugako erakarpen elementu nagusiak.
- **Turismo aktiboa:** Mendi ibilaldiak, bizikletak eta hipika dira Debagoienako turismo aktiboaren eta kirolaren produktu nagusiak. Eskaintza hau, bertako ibilbide eta Vasco Navarro Bide Berdearen inguruan garatzen dira.

Aurrera begira eta Debagoiena 2030 Agenda oinarri izanda, etorkizuneko estrategia, agenteen harremanak sendotzean, eskualdeaz gairikiko erakundeekin harremanen optimizatzea, produktu turistiko espezializatuen sorrera eta dagoena balioan jartzea, irisgarritasuna hobetzea eta eskaintzaren kalitatearen hobetzean egon beharko litzateke oinarrituta.

Azkenik, eta ildo berdinetik jarraituz, Debagoienako eskualdea Helmuga Turistiko Adimendua (HTA) bihurtzeko frogatik pilotuan parte hartu eta eraldaketa prozesuan sartu da dagoeneko; teknologia eta berrikuntza berriak txertatzea lan prozesuetan beti ere iraunkortasuna eta irisgarritasuna helbururen zerbitzura gardentasuna, partaidetza eta eraginkortasuna bilatzen duen gobernantza eredu batean oinarrituta.

5.2. Garapen eta promozio turistikorako helburuak

Nahiz eta estrategia bateratu baterako organo kudeatzaile bat egon, ez dira herrien arteko helburu amankomunak edo lerrokatuak identifikatzen. Hori dela eta, Debagoienako errealitate turistikoaren diagnostiko honen baitan, udalerrri ezberdinen egungo ikuspegi eta helburuak bildu dira, ondorengo lerroetan garatu den estrategia turistikoan kontutan hartu direnak.

Helburuak	BERGARAKO UDALA
<ul style="list-style-type: none">• Udalaren turismo-kudeaketa sustatzea, giza baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin adostutako eta komprometituako ibilbide orri batean oinarrituta, eskualde mailako ikuspegiarekin eta herritarren inplikazioarekin integratuta eta partekatuta.• Gune turistikoaren harrera, irisgarritasuna, azpiegitura eta baliabideen hobetzea.• Udalerrriaren ahalmenari jarraituz dion eta eskalara eginda dagoen turismo eskaintza bat garatzea.• Bergararen protagonismo handiagoa lortzea Euskadiko turismoaren egoeran eta merkatuan, produktu eta sustapen ekimen eraginkorrak sustatuz.• Lehiakorra eta profesionala den eta eskarira bideratuta dagoen enpresare turistiko baten garapena bultzatzea, euskadiko turismo iraunkorraren kode etikoak ezarritako irizpideen arabera.	

Helburuak	OÑATIKO UDALA
<ul style="list-style-type: none">• Oñatiko turismo sailak eskualdeko eta euskadiko turismoan duen kudeaketa gaitasuna eta protagonismoa sendotzea.• Helmuga turistiko iraunkor eta arduratsu baten eraketan aurrera egitea.• Kalitatezko eskaintza turistiko esperientziala eta lehiakorra garatzea, egungo eskarira bideratuta eta urte osoan jarduteko gai izango dena.• Oñati markaren balio espezifikoak eta bereziak zabaltzen jarraitzea, eta haren ospea handitzea merkatu objetiboetan eta lehentasunezkoetan.• Aurrera egitea turismo sektore jasangarria, lehiakorra eta berritzailea finkatzeko eta indartzeko bidean.	

Helburuak	ARRASATEKO UDALA
<ul style="list-style-type: none">• Turismo Berde eta jasangarri baten inguruan lanketa sendo bat garatzea.• Ondare kultural, natural eta industrialaren optimizazioa eskualde mailako tratamendu batekin.• Enpresen koordinazioaren indartzea bi eremuetan: kalitatea eta lehiakortasuna.• Kanpo proiektzioaren hobetzea komunikazio eta informazioaren ikuspegitik.	

6. AMIA ANALISIA - DEBAGOIENA MANKOMUNITATEA

Ondorengo lerroetan, Debagoiena Mankomunitatearen egungo turismo errealitatearen eta sektorearen egoerari buruzko ideia, kontzeptu eta gako guztiak bildu dira AMIA analisiaren bitartez. Hau oinarritzat hartuta definitu da ondorengo atalean landu den planteamendu estrategikoa eta lan ildoak.

Idea bakoitzaren esparrua identifikatzea errazagoa izan dadin, zenbait ikono identifikatu dira:

AHULGUNEAK

1. Helmuga turistikoaren estrategia bateratu baten planifikazio falta.
2. Lurraldeko eragileak (udalak) pertsonal falta turismoaren kudeaketaz ardatatzeko.
3. Bakardade sentimentua turismo eragileen artean.
4. Sektore publiko-pribatu eta pribatu-pribatuaren arteko lankidetzeta eta koordinazio falta (mahai sektoriala).
5. Udaletako turismo sailak eta beste sailen arteko koordinazio eza identifikatzen da.
6. Garraio publikoari dagokionez, zerbitzuak berriguratuzeko beharra ikusten da, baliabideak egonda, ordutegia, geltokien kokapena, taxi zerbitzua....
7. Garraio publikoa aukeren arteko lotura eta saretzea ez oso garatua.
8. Turismo sektorea osatzen duten baliabideetara iristeko seinaleztapen maila baxua edo desegokia (alojamenduak, jatetxeak, baliabide turistikoak, ibilbideak...).
9. Debagoienan aurkitzen den ondarearen ezagutza maila baxua.
10. Urtarokotasun maila altua.
11. Turismo sektorea, beste sektoreekin alderatuta, garapen maila baxuan kokatzen da.

12. Helmuga turistikoaren eskaintzaren merkaturatzea egituratzeko estrategia ezak, helmuga ezagutzeko zailtasunak ekartzen ditu.
13. Helmuga turistikoaren marketin estrategia eta komertzializazioaren sustapen faltak, bertako baliabide eta zerbitzuetara iristeko zailtasunak ekartzen ditu.
14. Turismo eskaintza amankomuna merkaturatzeko eta egituratzeko beharra.
15. Debagoienan aurkitzen diren baliabideen ezagutza maila baxua.
16. Helmuga turistikoak ohe kopuru baxua eskaintzen du.
17. Eskaintzaren profesionalizazioaren beharra.
18. Turismo-produktuen espezializazio eza merkatu-nitxoetara bideratua. Gehienak publiko orokorrari zuzenduta daude eta ez dute ezaugarri bereizgarririk.
19. Gaur egun bezero potentziala diren familientzat eskaintza eza.
20. Bide Berdea eta Ignaziotar bidearekin lotutako turismo produktuen garapen falta. Tokiko zerbitzu turistikoen enpresen eskaintza gutxi dago.
21. Produktu turistikoen estazionalzazioa (hizkuntza ezberdinetako produktuekin lan egiteko zailtasunak edo produktuen egokitzapen falta bisitarien ezagutzari dagokionez.
22. Bulegoetan eta informazio turistikoko puntuetan ez dago datu bilketa sistema bateraturik bisitariaren perfila hobeto ezagutzeko.
23. Bisitarien asebetetze maila helmugan ez da ezagutzen, informazio hau jasotzeko sistema bateratua ez da aplikatzen sektoreko eragileen artean (aloramenduak, jatetxeak, turismo enpresak, turismo bulegoak...).
24. Azken urteotan helmuga turistikoko zenbait baliabideetan eta gunetan masifikazio arazoak egon dira.
25. Natur ondarea babesteko sentsibilizazio kanpainarik ez dira identifikatu.
26. Debagoiena helmuga turistikoaren barne kokatzen diren herrien arteko desoreka produktu turistiko eta aloramendu eskaintzari dagokionean.
27. Turismo bulegoen gaur egungo izaera eta funtzioak. Turismo bulegoen izaera.

INDARGUNEAK

1. Eskualdearen kokapena lurraldean.
2. Donostia eta Gasteiz hiriburuekin lotura oso ona da, irisgarritasun maila ona du bertako eta bisitariak hartatzeko orduan.
3. Helmuga turistikoak, erakargarritasun maila altuko baliabide eta ondasun natural eta kultural ugari ditu.
4. Industria sektoreak helmugan duen indarrak baliatuz, posizionamendua lantzeko aukera berriak ekar ditzake (bezero horiek etorkizuneko bisitari bilakatuz).

5. Turistikoki garatzeko aukera handiak daude oraindik helmuga osoan. Potentzialidade turistiko altuko eskualdea da.
6. Ekosistema Kooperatiboa balioan jar daitekeen kontzeptu intrinsekoa da lurraldean.
7. Euskal Herri mailan “erreferentziazkoak” diren baliabide ugari dituen lurraldea da (Arantzazuko Santutegia, Arrikutz Kobak, etb.).
8. Vasco-Navarro Bide Berdea eta Ignaziotar Ibilbidea kalitate bereizgarri garrantzitsua duen baliabide/produktu turistikoa da (zikloturismo eta xendazaletasunaren segmentuari zuzenduta daude) eta garapenerako ahalmen handia dute.
9. Ostatu eskaintza mota zabala eta kalitate onekoa. Iraunkortasun indizearen barruan
10. Bertakoei zuzendutako turismo eskaintza garatua dago. Helmuga turistikoaren lurralde orekaren ardatzetako bat da.
11. Turismoak lurraldean duen eraginari dagokionez ez da perzeptzio negatiborik somatzen.
12. Turismo egituraren garapenerako eragile baten presentzia (Debagoienako Mankomunitatea) honek eragileen bateratzeile gisa lan eginez.
13. Debagoiena Mankomunitatearen harreman egokia beste eragile batzuekin (udalak, GFA, Basquetour, etab).
14. Debagoiena osatzen duten udalerrri ezberdinek jarduera turistikoa sustatzeko zuzkidura ekonomikoak errazten dituzte.
15. Masifikazioarekin lotutako errealitateak arautu eta ulertzeko administrazio ezberdinen ahalegina.

MEHATXUAK

1. Lurraldeari aplikatutako ebaluazio- eta bisitarien fluxuen jarraipen-sistemaren gabeziak, aurrera begirako arazoak sortu ditzake.
2. Bisitariari bigarren bisita bultzatuko duen eskaintza berritu eta erakargarria eskaintzeko gaitasun eza.

AUKERAK

1. Turismoa tokiko garapenerako eta enplegua sortzeko motor gisa aprobetxatzea, baita bertako ondarea balioan jartzeko hau artikulatzaile bilakatzea.
2. Sektorearen garapena: iraunkortasun indikatzaileen barruan kokatuta alojamendu plazak handitzeko aukera dago.

3. Helmugak eskaintzen duen eskaintzaren espezializazioa zikloturismoan. Zerbitzu-enpresa espezializatu berriak eta produktu turistiko berriak sortzeko aukera da.
4. Segmentu potentziala familia turismoa izanda, familiei bideratutako eskaintza zabala garatzeko aukera.
5. Autokarabanentzako aparkalekuen eskariaren hazkundeak bidaiarien profil horri zuzendutako eskaintza bat sortzeko ateak zabaltzen ditu.
6. Ekoturismoaren aldeko apustua, lurraldeko baliabide naturalak indartuz eta bisitari perfil horri zuzendutako eskaintza integrala konfiguraturuz.
7. Ignaziotar Bidea osatzen duten beste helmugekin proposamenak lantzea, nazio eta nazioarteko profilak erakartzeko
8. Jarduera turistikoaren jasangarritasuna zaintzeko interesa jasotzen da. Udalen konpromisoa turismoaren garapen iraunkorraren alde.
9. Kudeaketa ereduak birpentsatzeko aukera aurreikusten da: sareko lana, ikerketa, turismo jarduerak garatuz eta sakonduz.
10. Elkarlana sustatzeko apostua erakutsi dute helmugako eragileek.
11. Turismo mahai eta mahai sektorialen beharra.
12. Turismo bulegoen izaera eta funtzioak eguneratu eta birplanteatzea.

7. Estrategia turistikoa

Orain arte egindako egoeraren diagnostikotik ateratako ondorioak izan dira Debagoiena helmugaren ikuspegia eta turismo erronkak proiektatzeko oinarria eta planteamendu estrategikoa definitzeko oinarria.

Era berean, ondorengo lerroetan landutako planteamendu estrategikoak bat egiten du, Debagoiena eskualdeak martxan jarri duen *Helmuga Turistiko Adimendua (HTA) programarekin*⁸ eta *Euskadiko Turismoaren Kode Etikoak*⁹ definitzen dituen printzipioekin. Hortaz, definitzen diren lan ildo estrategikoetan, teknologia eta berrikuntza berriak txertatzera bideratzen den metodología kontutan hartuko da, beti ere iraunkortasun eta irisgarritasun helburuen zerbitzura eraginkortasuna, gardentasuna eta parte-hartzea bilatzen duen gobernantza eredu batean.

7.1 Helmuga turistikoaren ikuspegia

Helmugaren ikuspegiari dagokionez, turismo gaietan alde aurretiko estrategiarik ez izateak zaildu egiten du ikuspegi bateratua proiektatzea.

Hori dela eta, lan honetan aurrera eraman den *parte-hartze prozesua* eta *Helmuga Turistiko Adimendunaren programa* azaltzen dira definizio horren testuinguru gisa.

Debagoiena helmuga turistiko berritzailea izatea, infrastruktura teknologiko baten gain, lurralde turistikoaren garapen jasangarria bermatzen duena, denentzat irisgarria, bisitariari inguruarekin bat egiten errazten diona, bere esperientziaren kalitatea areagotuz eta era berean egoiliarren bizi kalitatea hobetuz.

Ikuspegi honek izaera orokor eta asmo handiko adierazpena da. Hortaz, Debagoieneko turismo sektorearen garapena ahalbidetuko duen eta etorkizuneko ekintzak jorratzeko balio izango duen norabidea da.

⁸ Helmuga turistiko adimendua (HTA) proiektua etengabeko hobekuntza-prozesua duten helmugak errazteko helburuarekin jaio da, eta epe luzera turismo-eredu iraunkor bat garatzea ahalbidetuko duen tresna bat eskaintzea, eta bere alderdi guztietan. (soziokulturalak, ingurumenekoak eta ekonomikoak). Ekimen hau, 2012-2015 Turismo Plan Nazional eta Integralek sortua, Espainiako Gobernuko Turismo Estatu Idazkaritzaren konpromiso handietako bat da.

⁹ Euskadiko Turismoaren Kode Etikoak helburutzat dauka funtsezko printzipio batzuk ezartzea Euskadiko eragile turistiko guztiek erantzukizuna eta jasangarritasuna integratu ditzaten beren eguneroko jardunean, abiapuntutzat errespetua eta ulermena hartuz.

7.2 Helburu estrategikoak

Gaur egungo egoerak, lurraldearen erronkak turismoaren ikuspegi iragankor batetik ulertzea behartzen gaitu, non orain arte aplikatu eta ikasitakoak gizarte berrikuntzarako ikuspegi eta proposamen berriak jorratzeko beharra planteatzen duen. Modu honetan, garrantzitsua da Debagoiena helmugaren **helburu estrategikoak** finkatzea, eta hauek gida izanik, lan ildo estrategikoak definitzea.

A) Gobernantza: Eskualdearen turismo gobernantza tokiko estrategia eta egituretatik haratago ulertzeko lan ildo bezala aurkezten da; helmuga turistikoa (eskualdea) helmuga turistiko bakar bat bezala konfiguratu ahal izateko helburarekin.

Debagoiena helmuga turistikoaren kasuan, eskualdeko agente publikoek Debagoiena Mankomunitatearen figurarekin bat egitea abiapuntu gisa ulertzen da. Horretarako, honen jarduketa esparruaren definizioan, partaidetza mekanismoen hedapenean eta eragile ezberdinen beharren identifikazio eta definizioan lan egin beharko da. Kudeaketa ereduaren birpentsatzeko aukera ere mahaigaineratzen da.

Zentzu horretan, erabakigarria eta gomenigarria izango litzateke udaletako teknikari edo udal arduradunekin koordinazio eta lankidetzaren mekanismo zuzenak definitzea eta turismoaren garapen iraunkor baten aldeko udalen konpromezua ituntzea.

Helmuga Turistiko Adimenduaren markoan, egoitza elektronikoaren erabilera handitzea azpimarratzen da, bertakoen eta eragile publikoen arteko harremanak indartzeko helburuarkekin.

Bestalde, kasu batzuetan, museo eta interpretazio zentro eta udal mailako strategiaren banaketa egitea ezinbestekoa sumatzen da.

B) Lurralde oreka: Debagoiena eskualdeko turismo sektorearen garapenaren eta bertako errealitate ezberdinen arteko harmonia bat lortzea da helmugaren garapenerako premia. Puntu hau, turismo errealitateen asteko asimetriari eta eskualde bereko garapen desberdinarekin lotzen da. Helburua, asimetria horri erantzuna bilatzea izango da.

Turismo sektorearen kudeaketa adimentsu baterako teknologiak garatu eta indartzeko beharra antzematen da. Eskualdeak jasotzen dituen bisitarien datuen eredu homogeneizatu bat garatzea ere gomenigarria izango da; bisitariaren

asebetetze maila eta hauen ezaugarriak ezagutzeko alde batetik, eta eskaintzari begira espezializatorako atak zabaltzeko bestetik. Aldi berean, fluxuen kontrolerako mekanismo eta erramintak ahalbidetzea ezinbestekoa izango da eskualde mailan identifikatu diren masifikazio arazoei aurre egin eta fluxuen dibertsifikazioa hobetzeko.

Eskualde mailako behatokirik ez da identifikatzen.

- C) Eskaintza:** Eskaintzari lotutako estrategiak honen profesionalizazio, indartze eta estrukturatzearen aldekoa izan beharko luke. Zentzu honetan, datozen urteetarako estrategia eskaintza eta eskariaren harteko egituratzeari bideratuko litzateke.

Estrategia honek, ondorengo elementuen inguruan egin beharko du lan:

- Alojamenduak:** ostatu eskaintza handiago bati lotu ahal izatea; beti ere, iraunkortasun indizearen markoan.

Belaunaldi erreleboaren inpaktua ahalik eta baxuena izan dadin estrategia homogeneizatu bat garatzea eskualde mailan egokia izango da honen indartze eta profesionalizazioari begira.

- Baliabideak:** ondare historiko-kultural eta naturala eskualdeko turismo estrategiaren artikulatzaile orekatu modura ulertu beharko da honen erakargarritasun mailaren arabera.

Gainera, gaur egun baliabideen gaineko errealitateen eguneraketa eta birplanteamendua egin beharko da; eskaintzaren irisgarritasun maila hobetu eta errealitateari modu egokiago batean erantzun eta egokitze helburua izanik.

- Produktuak:** zerbitzu eskaintzaren eta produktuen espezializazioa indartzeko estrategia baten plangintza gomendatzen da.

Eskaintza bereizgarri zabal bat garatzeko eskualdea dela identifikatu da; beraz, urterokotasunarekin amaitu eta eskualde mailan, xede taldeei bideratutako eskaintza eta zerbitzu espezializatu eta osagarriago bat garatzeko aukera antzematen da; ekoturismoaren aldeko apostua egiten, zikloturismoaren inguruan zerbitzu eta azpiegitura berriak sortzen eta familia turismoari bideratutako produktu berrien deiseinuarekin batez ere.

Bestalde, helmugan sakabanatuta dauden turismo bulegoen izaera eta funtzioen inguruan hausnartzeko beharra somatu da; hauen papera

birplanteatu eta errealitateari modu egokiago batean erantzuteko helburuarekin.

D) Merkaturatzea: Marketin estrategia partekatu eta egokituago bat lantzeak lurraldea egituratzeko eta turistikoki garrantzia duten espazio jakin batzuen jarraipena egiteko aukera eskaini diezaioke Debagoiena eskualdeari. Aldi berean, baliabide eta zenbait zerbitzuenganako irisgarritasuna hobetzeko tresna bezala ulertu daiteke.

Sektorearen arteko elkarlanak berebizikio garrantzia hartuko du eta aurretik adierazitako helburuak lortzeko eta berregituratzeko euskarri gisa ulertzen da. Aspektu honetan, elkarlan honen aldeko proaktibitatea identifikatu da sektoreko eragileengandik.

Merkaturatze eta erreserba erraminta eta mekanismo bateratu baten osatzeak, eskualdearen markaren indartzea ahalbidetuko luke. Aldi berean, bertako enpresek erreserba zuzenak jasotzeko aukerak handitu eta eskaintzaren espezializazioa hobetzeko hautatzea bultzatuz.

Azkenik, ekosistema kooperatiboa balioan jartzea kontzeptu intrinseko bezala ulertzen da; eskaulderan posizionamendua landu eta indartzeko aukera berriak ahalbidetuz.

E) Berrikuntza: beharrezkoa ikusten da eskualde mailako estrategia integral bat berrikuntza kudeaketa barne prozesuetan aplikatzeko.

Berrikuntza ere produktu eta zerbitzuen garapenean aplikatzeko aukera ikusten da modu sistematizatu batean. Gainera, berrikuntza ekosistemaren baitan agon daitezkeen aktoreak identifikatzeko proposamena egiten da.

F) Iraunkortasuna eta irisgarritasuna: mugikortasun iraunkorreko planak aplikatzeko aukera nabarmentzen da eskualdeko udalerrri guztietara eskualdeko garraio aukeren sarea garatu eta sendotzeko helburuarekin.

Iraunkortasunerako bulego tekniko baten sorrera izan daiteke abiapuntu egoki bat.

7.3. Estrategia ardatzak

Debagoiena eskualdean datozen urteetan turismo arlorako definitu den ikuspegi estrategikoak sei jarduera ildo ezberdin proposatzen ditu eta horien gainean alde zuzenetik identifikatutako helburu estrategikoei erantzuten dieten proiektu eta ekintza ezberdinak garatzeko. Ildo hauek izango dira datorren urteetako ekintza planaren definiziorako oinarritzat hartuko direnak.

1 Ildoa	GOBERNANTZA	IRAUNKORTASUNA
2 Ildoa	PRODUKTU TURISTIKOEN GARAPENA	
3 Ildoa	BISITARIA	
4 Ildoa	PROMOZIO ETA MERKATURATZEA	
5 Ildoa	EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	
6 Ildoa	SEKTORE PRIBATUA	

Iraunkortasuna

Helmugaren garapen iraunkorra elementu holistiko bezala ulertzen da eta bereziki garrantzitsua izango da Debagoienako eskualdeko Estrategia Turistikoa garatzeko orduan. Iraunkortasuna, bere alderdi ezberdinetatik ulertuta (soziala, ekonomikoa, eta ingurumena), aterki kontzeptual eta metodologikotzat hartzen da, hau da, lan ildoen multzoa honen ardatzean oinarritzen da.

Zentzu horretan, iraunkortasuna beste ardatzetan garrantzi edo eragin handiko kontzeptu programatiko gisa proposatzen da.

1. Ildoa - Gobernantza

Helburu espezifikoak:

- 1. HELBURUA: Debagoiena Mankomunitatearen eta eskualdeko udalen arteko harremana sendotzea.**
 - a. Debagoiena Mankomunitatearen, udalen eta eragile ezberdinen harteko sarea indartzeko harramintak definitu eta landu.

2. HELBURUA: Zeharkako kudeaketa harramintak indartzea.

- a. Mankomunitatearen kudeaketa egitura sendotu, non turismo eragile guztien papera indartu eta parte hartzen duten lan eta koordinazio dinamikak berreskuratuz.
 - i. Eragile guztien artean informazioa transmititzeko jarraibideak eta bideak argitu eta errefortzatu.

3. HELBURUA: Turismo Bulegoen inguruko izaeraren lanketa burutzea.

- a. Turismo Bulegoen etorkizuneko izaera eta betebeharrak identifikatu eta definitzea.

2. Ildoa - Produktuen garapena eta baliabide turistikoak

Helburu espezifikoak:

4. HELBURUA: Posizionamendua eta eskaintza hobetzea ahalbidetzen duen eskualde ikuspegia duen produktu turistikoen eskaintza indartzea.

- a. Vasco Navarro Bide Berdearen eta Ignaziotar Lurraldearen inguruko eskaintza zabaldu eta indartu.

5. HELBURUA: Gaur egungo eskaintza egokitu helmugaren posizionamendua hobetzeko.

- a. Egungo eskaintza turistikoa estrukturatu eta eskualdearen xede den publikora egokitzea.
- b. Zerbitzu turistikoko enpresen harteko lankidetzaren sustatzea.
- c. Espezializazioa eta bereizketa lantzea merkatu-nitxo jakin batzuetan (familia turismoan batez ere).

6. HELBURUA: Turismo baliabideen eta azpiegituren mantentze lanak burutzea turismo strategiaren berme gisa.

- a. Gaur egungo baliabideak birbaloratzeko eta balio katean txertatzeko lerroetan lan egitea. Baliabideen ikerketa eta interpretazioa.
- b. Irigarritasuna eta seinaleztapena hobetzea lurraldeko esperientzia bermatzeko.

3 Ildoa - Bisitariak eta MICE

Helburu espezifikoak:

7. HELBURUA: Turistentzako fidelizazio estrategia bat lantzea ostatuekin batera.

- 8. HELBURUA: MICE bisitariak helmugan duen rola sakonago aztertzea, bere eragina ezagutu eta eskaintza hobeto bideratu ahal izateko.**

4. Ildoa - Promozioa eta merkaturatzea

Helburu espezifikoak:

- 9. HELBURUA: Debagoiena eskualde ikuspuntutik marketin turistikoko estrategia bat garatzea.**
- Eskualdeko marka indartu eta helaraztea lortu nahi den posizionamenduarekin.
 - Eskaintza turistikoarekin lotutako merkaturatze kanalen indartzea.
- 10. HELBURUA: Informazio turistikoaren komunikazio homogeneorako oinarriak indartzea.**
- Eragile guztien artean (kudeatzaileak, kudeatzaile espezializatuak, zerbitzu espezializatuak eta turismo zerbitzu osagarrien enpresak) informazioa transmititzeko jarraibideak ezartzea.

5. Ildoa - Ebaluaketa eta jarraipena

Helburu espezifikoak:

- 11. HELBURUA: Helmugan Turismo Adimen Sistemak garatu eta indartzea Turismo Helmuga Adimenduaren markoan.**
- 12. HELBURUA: Turismoaren kalitate eta jasangarritasun sistemak garatu eta indartzea.**
- Bisitarien fluxuak bideratu eta masifikazio kasuak ekiditeko erraminten diseinua.

6. Ildoa - Sektore pribatua

Helburu espezifikoak:

- 13. HELBURUA: Enpresen lehiakortasuna bultzatzea.**
- Sektorearen profesionalizazioa eta hauen harteko lankidetzaren bultzatzea.
 - Helmugarekin lotutako prestakuntza indartzea (eskaintzaren espezializazioa).

Proposamena zuen gustukoa izango delakoan,
Hernanin , 2023ko Urtarrilaren 27a



Aholkularitza turistikoa. Turismo Iraunkorra

BIZIBIZIKI SL
Hirigunea 16
20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 691 608
info@bizibiziki.com
www.bizibiziki.com
CIF.: B75016246